



Patxi OLAZAR → 36

Adio erran dio erremonteari

2016ko otsailaren 25a | XXXVI. urtea | 656. zenbakia

| | | | | |
|---|--|--|--|---|
| Ramon Latasa omenduz Sunbillan aizkora jaialdia martxoaren 6an → 37 | SAHARA GOGOAN → 17 Sentsibilizazio saioak Elizondan eta Donezteben | LEITZA → 25 305 kilokoarekin saiatuko da Inaxio Perurena | ARESO → 26 Herriko zoladuraren auzia irabazi du Udalak | BERTSOLARITZA → 21 Bardoak-en baitan saioak Leitza, Igantzi eta Beran |
|---|--|--|--|---|

NESKATOAK dokumentala




Martxoaren 6an aurkeztuko dute Berako Kultur Etxean Neskatoak dokumentala, 19:00etan.

Urte luzez isilean egindako lanari aitortza

Frankismoaren urterik gogorrenetan, ehunka izan ziren dena utzi eta etorkizun hobe baten bila Baztan-Bidasotik Ipar Euskal Herrira eta frantziar estatura lanera joan ziren emakumeak, neskato moduan aritzeko. Haien bizipenak bildu nahi izan ditu Jon Abril beratarrak eta *Neskatoak* dokumentala grabatu du, «emakume hauen lana aitortu eta jendarte bezala eurekin dugun zorra arintzeko».

ERREPORTAJEA → 4-5

MARTXOAK 8: EMAKUMEEN NAZIOARTEN EGUNA



Ekitaldi ugari aldarrikapen egunerako

Hitzaldiak, tailerrak, mendi ateraldiak, erakusketak, antzerkiak, bertso saio musikatuak, elkarretartzeak... Martxoaren 8a Emakumeen Nazioarteko Eguna dela eta, egitarau zabalak prestatu dituzte eskualdeko herrietan, martxoaren 8rako eta ondoko egunetarako ere bai.

ELKARRIZKETA → 3

Zapalkuntzaren kontra

Baztanen eta Beran sortu diren talde feministak ikusten dutenaz eta euren helburu eta erronkez aritu zaizkigu.

ZOZKETAK → 15



Txartela egiteko deitu 948 63 54 58ra.

Txikien I. Azoka 2016 **Gipuzkoa**

FICOBA • IRUN

Haurdunalditik haurra izateraino

Martxoaren 11tik 13ra

Ostirala
16:30 - 20:30
Larunbata eta Igandea
11:00 - 14:00
16:30 - 20:30

Sarrera
2€
12 urterarte doan

Erakusketa eta Salmenta,
Tailerrak, Hitzaldiak, Haur aisialdi gunea,
Jolasak, Zozketak, Opariak...

Organiza Antolatzailea: **sofeven** Tlf: 625 712 541 @: eventos@sofeven.net

Montaje Muntaiak: **Stands Navarra, S.L.**

FICOBA

www.txiki.ficoba.org

HIPERSIMPLY NAFAR MENDI

AUTO & MOTO

ZOZKETA

2016 KO APIRILAK 23

2

Konpetizioko Moto ttikia

1

Ford KA

948.452.656 | Nafar Mendi Merkatalgunea | Arraioz, Baztan | Arauak kontsultatu

«Feminismoari buruzko gaiez solasteko» elkartzen hasi eta 2015eko irailean sortu zen Goldatz, Berako emakume talde feminista. Urte akabailan, berriz, Baztango talde

feministaren sorrera iritsi zen «zapalkuntza egoerak azaleratu eta gainditzeko» asmoz. «Gauzak aldatzen ari diren sindromearekin bizi gara» eta «oraindik egiteko aise gehia-

go» dagoela azpimarratu dute bi taldeek. Aldaketa honetarako «hezkuntzak pisu handia» du eta «berdintasuna adin eta maila guztietan jorratu beharko genuke».

Baztango eta Berako talde feministak |

«Etorkizuna gure esku baldin badago gure eskutan dago aldatzeko giltza»

Garbiñe ALTUXU |

Zergatik sortu zenuten taldea?

Baztango talde feminista: indarkeria eta eraso sexista guztiak salatzeko eta aldi berean gure buruak boteretzeko eta hain beharrezkoa den eraldaketa sozial honetan emakumeok protagonista bihurtzeko.

Goldatz: Feminismoa lantzen duten herriek erraztasun gehiago izango dituzte eraso sexista baten aitzinean erantzun bat artikulatzeko, baita modu eraikitzaile batean aitzinera pausoak emateko eta kontzientzia zabaltzeko, normalean talde feministak izaten baitira gidari eta lan hori egiten dutenak. Guzti honengatik ezinbertzekoa iruditzen zaigu talde feminista baten presentzia.

Nolako egoera ikusten duzue eskualdean?

B: Talde feministak sortzen ari dira, eta hori berri-pozgarria da. Herri mugimendu antolatua ezinbertzekoa da jendartean eraldaketak izateko. Bertze aldetik, eskualdean dagoen berdintasun ezaren seinale da talde feministen sorrera. Gabezi handiak ditugu arlo honetan maila instituzionalean zein jendartean oro har, lan aunitz dago egiteko.

G: Gure ustez eskualdeko egoera ez da hobereena, baina egia erran informazio gutxi dugu. Horregatik egoera aldatze-



ARGAZKIA: AINHIZE IRAZOKI



UTZITAKO ARGAZKIA

Goiti Goldatzeko kideak (Berako talde feminista) eta beheiti Baztango talde feminista.

ko asmoz, interesgarria eta aldi berean beharrezkoa ikusten dugu udal edo mankomunitateen aldetik berdintasunaren inguruko analisi eta diagnostiko bat egitea, bertze gai anitzetan egiten den bezala, euskararekin adibidez.

Nola landu behar da berdintasunaren gaia etxean, ikastolan, lantokian...?

B: Landu baino, berdintasunean hezi behar ditugu gure neska-mutilak. Berdintasunean hezten baditugu, normaltzat hartzen diren gauza aunitz zalantzan paratzen hasiko ginateke. Lehenik eta behin norberak zapalkuntza egoera horiek, egunerokoan horren nor-

IKASTEKO ETA AHAZTEKO

Goldatz: «utopikoa dirudien arren, dena dugu deskasi eta berrikasteko. Jaiotzen garen momentutik etxean, ikastolan, kalean, telebistan, jendartean orokorrean ikusitakoarekin gure artean erlazionatzen ikasi eta nortasuna eraikitzen joaten gara. Beraz, berez ditugun balore nahiz jarrerak ez dira berezkoak, ikasiak baizik. Modu indibidualean norberak gustatzen ez zaiona aldatu eta gustatutakoa errefortzatu ondotik, modu kolektiboan egiten behar dugu lan».

mal bizi ditugunak, antzeman behar ditu. Desberdintasun egoera edo zapalkuntza egoera horien kontzientzia hartzen dugularik (ahaldundu), norberak bere inguruan uste baino gehiago eragiten ahal duela iruditzen zaigu. Etxean seme-alabak berdin haziz, eta ez generoen araberako heziketa desberdina emanez, eskoletan neska-mutilei hausnartzeko bideak emanez...

G: Gure bizitzetako esparru guztietara zabaldu behar dugu, pribatua eta publikoan. Garrantzitsua da jendea kontzientziaztea, batzuek gure borroka ez dute beharrezkoa ikusten eta beharrezkoa dela ikusarazi behar die-

gu. Etxean adibidez, gairen inguruan solastu beharko genuke. Errazena telebistako programek, internetek... errua dute la erratea da. Goazen gure seme-alabekin telebistako saio ezberdinak ikusi eta elkarrekin hausnartzera. Bestalde, Hezkuntzak ere pisu handia dauka parekidetasunaren arloan. Adin eta maila guztietan jorratu beharko genuke berdintasuna, eta ez egun sinbolikoetan gauza puntual huts batzuk eginez (martxoak 8, azaroak 25...).

Nolako etorkizuna aurreikusten duzue?

B: Gauza aunitz egin dira, nahiz oraindik aise gehiago dagoen egiteko. Etorkizuna gure esku badago, gure eskutan dago aldatzeko giltza. Jendartean erdia ez da zapalkuntza egoera ahal bertze erdia hobe egoteko.

G: Azken urtetan mugimendu feministek egingo dako lana nabaria da eta lan horri esker emakumeon egoera aldatzeko funtsezko urratsak eman dira. Hala ere, «gauzak aldatzen ari diren sindrome» rekin bizi gara. Tamalez gure ustez, sexu bereizketaren aurrean tolerantzia handia dago, oraindik ere normaltzat hartzen dugun errealitatea da. Oztopo hauen aitzinean oraindik lan handia dugu egiteko baina Euskal Herrian baldintza hagitz onak ditugu aurrera egiteko.



UTZITAKO ARGAZKIA

Pakita Iratzoki eta Carmen Abril eguberrietako opariak jasotzen, Ziburuko Elkano etxean.

DOKUMENTALA → JON ABRILEKIN *NESKATOAK* DOKUMENTALAZ SOLASEAN

«Gure historiako kontu hauek ez dira argitara atera, protagonistak emakumeak direlako»

1950-70 urteen artean ehundaka emakume izan ziren urte luzez euren familia eta etxeetatik urrun, neskato modura lanean ibili zirenak. Jon Abril en amatxi izan zen horietako

ko bat, «etxean aditutako kontuetatik» tiraka hasi eta «bizipen horiek biltzeko tenorea» iritsita *Neskatoak* dokumentala grabatu du bertako emakumeen bizipenekin.

Garbiñe ALTXU

Ttikitatik ezagutu ditu Jon Abriek Amate Micaela neskato ibili zeneko anekdotak eta «etxean aditutako kontu horietatik piztu» zitzaion neskatoei buruzko dokumentala egiteko motibazioa. «Amate Micaela gazterik alargundu zen, eta seme-alabak ahizparekin utzita, Ipar Euskal Herri-

ra joan zen lanera, neskato. Donibane Lohizunen aritu zen lehenik, eta gero 20 urte baino gehiago Ziburuko Elkano etxean. Etxe hartatik pasa ziren, bertzeren artean, bere lau iloba ere. Hortaz, etxean beti aditu izan ditut orduko ibilerak, lan baldintzak...». Halere, neskato ibilitako protagonistetako aunitz «da-

goeneko hilda daude, amate bezala», beraz, «bizipen horiek biltzeko tenorea» zela iruditu zitzaion Joni. Dokumentala grabatzeko esperientziaren bila hasi eta uste baino «aunitzez ere emakume gehiago joan zirela ohartu naiz» kontatzen du harrিতuta Abriek, «ehundaka izan ziren». Nahiz eta Gipuzkoan, Pi-

riniotan, Bizkaian... ere neskato lanean ibilitako emakumeak topatu, «dokumentalean Baztan-Bidasokoak» baino ez ditu bildu. Eta batez ere «amate Micaela bezala, 50. hamarkadaren hasieran joan zirenak». Hamarkada honetan joan zirenak «pasaportetik gabe, ezkutuan, mendiz...» joaten ziren eta «oporrik gabe, egun librerik gabe, segururik gabe, kotizatu gabe...» egiten zuten lan. Gauzak pixkanaka aldatzen joan ziren eta 60. hamarkadatik aitzinera joandakoek «bertze baldintza batzuk izan zituzten, nahiz eta hauek ere gogor aritu behar izan zuten lanean».

EMAKUMEEN EKARPENA

Neskatoak dokumentala «emakume hauen lana aitortzeko eta jendar-te bezala eurekin dugun zorra arintzeko» helburuarekin egin du Abriek. «Gure historiaren parte dira eta gure amatxiek zein baldintzetan lan egiten zuten eta nola bizi ziren ezagutu behar dugu». Emakume hauen lana

ESTREINALDIA

Martxoak

6

igandea, 19:00etan
Berako kultur etxean


«euren familien ekonomietan hagitz garrantzitsua izan zen frankismo garaian». Aunitzetan «gizonengan paratzen dugu arreta, baina emakumeen ekarpena berebizikoa da jendartean, neskatoek erakutsi bezala».

HAUSNARTZEKO GARAIA

Emakumeak duen garrantziaz gain «egungo gure jendartearen balioez hausnartzeko» helburuarekin egin du *Neskatoak* dokumentala Abriek. «Munduko bertze toki anitzetatik etortzen dira gurera lanera eta nola tratatzen ditugun ikustekak lotsarazi egiten nau». Gurera datozenak «beharretik, miseriatik, gosetik edota gerretatik datoz, hemendik Ameriketara, Frantziara, Suitzara edota Lapurdira bizi-

NESKATOAK DOKUMENTALEKO PASARTEAK EZAGUTUZ

Sagrario GOÑI | 1948, BERA
«14 urterekin joan nintzen Foixera. Joan eta biharamunean bi haurrekin gelditu nintzen. Nik ez nekien deus ere eginen. Negar egin eta balakoitik begiratzeko nuen».



Inma URANGA | 1950, ZUGARRAMURDI
«Ez zuten bertako jenderik atxematen eta hona etortzen ziren nesken bila, gaur egun munduko bertze tokietatik honat etortzen diren bezala, guk nahi ez ditugun lanak egitera».



modu hobe baten bila joan zirenak bezala, eta ostikoka hartzen ditugu!». Urteak ez dira alferrik pasatzen eta «gure herriek eta jendarteak azken 50 urteotan izan duten bilakaera izugarria» izan da. «Goitik beheiti aldatu da dena, lan egiteko modua, harremanak edukitzekoa, balioak... baina funtsean, guk burua atera dugu eta bertze batzuk dira orain zuloan daudenak». Sorterritik urrun «honat heldu diren hegoamerikar, afrikar edo Europa ekialdeko pertsonen errealitatea, desberdintasunak desberdintasun, ez dago emakume hauek bizi izandakotik hain urrun».

3 HILABETE BERRIRIK GABE

Esperientzia ezberdinak ezagutu ondoren «14 urterekin etxea utzi eta neskato joan behar izan zuten emakumeen kasuek» harritu dute gehien beratarra. Gazterik lan bila joan eta «hiru hilabete egin zitzaizketen etxeko bate-berri izan gabe, ezagutzen

ez zuten hizkuntza eta kultura batean». Haietako gehienek «ezkondu arte egin zuten bertan lan». Lanaldi hagitik luzeak izaten zituzten «goiz goizean hasi, eta arratserraino» ez zuten bukatzen. «Bizimodu ikaragarri gogorra izan bazuten ere, denek azpimarratu dute oroitzapen hagitik onak dituztela eta berriz ere joanen lirakeela». Ez da batera gaztaro erraza, «emakume hauen adonek eta indarrak harritu nau gehien».

DOKUMENTALAREN PROIEKZIOA

Dokumentala sorterrian aurkeztuko du Jon Abrilek martxoaren 6an, igandea, Berako kultur etxean arratsaldeko 7etan, Bortzirietako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak Emakumeen Egunerako antolatutako programazioaren baitan. Ondotik, martxoaren 9an Hondarribian, 10ean Donostian, 12an Arantzán, apirilaren 16an Zugarramurdin eta oraindik data zehaztu gabe Iruñean, Ataunen...



Pakita IRATZOKI | 1927, BERA
«Nire ahizpak lana aldatu zuen, eta bere nagusia izan zenak salatu egin zuen, paperik ez zuelako. Nire etxera etorri zen lanera, eta bertan egin zitzaizkion paperak».



Joxepa ALTZUGARAI | 1930, ARANTZA
«Arantzán bazen emakume bat, *Bizikleta* goitizenekoa, Putzubeltzeko Joxepantoni. Lana bilatu eta mendiz pasatzen laguntzen zuen eta hamar duro edo kentzen zituen. Lana egiten zuen!».

Jon ABRIL OLAETXEA- 1975, BERA

«Bertze proiektu batzuen hasiera izatea nahiko nuke»

Zenbat denbora behar izan duzu dokumentala egiteko?

7 hilabetetako lana izan da. Uztailan jakinarazi zidaten Donostia 2016tik proiektuan lagunduko zidatela. Abuztuan bertan hasi, eta orain arte.

Uste baino errazagoa edo zailagoa izan da?

Hasieratik argi nuen, batez ere protagonisten ahotsak zabaldu nahi nituela, eta protagonismo osoa euren emango nuela. Kontua da gai hau ez dela lehenagotik ikertu, ez dagoelako dokumentaziorik, datu-rik... eta dokumentala osatzeko euren testigantzetan baino ezin izan dut oinarritu.

Dokumentala egina dago. Eta orain zer?

Lehenbiziko gauza lana zabaltea izanen da. Gustatuko litzai-

dake bertze zerbaiten hasiera izatea. Sekulako aberastasuna dugu, izugarriko ondarea, pertsona anonimoez egindako lana biltzen segitu behar da. Gisa honetako lanekiko interesa dutenekin zerbait komuna sortu nahiko nuke. Biltzeko gauza aunitz dugu: migrazioak, kontrabandoa, garai bateko lanbideak, hizkuntza...





Nire txanda
Zuriñe ZUBILLAGA

Hegan

Fantasia imaginarioaren mundua da, errealitatek at dagoena. Geure buru barnean existitzen den mundu paraleloa, alegia. Mundua arrapaladan jaurtitzen zaigu gainera eta guk jasotako hori txukundu egiten dugu, norberaren abileziaren arabera antolatu. Batzuetan, norberak erabakitzen du jasotako hori proportzio eta puska ezberdinetan aparteko biltegiatan gordetzea: errealitatearenean edo fantasiarenean. Batzuetan, norberak erabakitzen du fantasiari jaten ematea, eta margotzea. Batzuetan puztukiak bایلiran puztu egiten ditugu, eta zerurantz askatu. Batzuetan errealitatearekin bat egiten dutenean, lehertu egiten dira eta buru gainera jaurtitzen zaizkigu. Batzuetan nahita egiten dugu. Batzuetan ez. Eta zein polita den nahita egiten dugunean, eta zein arriskutsua hala ez denean.

«Mundua arrapaladan jaurtitzen zaigu gainera eta guk jasotako hori txukundu egiten dugu, norberaren abileziaren arabera antolatu»

Ezpala

Aitor AROTZENA

Marion-ETAren txistea

Txiste (t)xarrak dio Francok -ETAn bukatzen ziren herri guztien izenak aldarazi eta horren ordez 'Del Caudillo' jartzea agindu zuela (eskualdean, *Goizu del Caudillo*, *Zubi del Caudillo*, *Azpilku del Caudillo*...), baina Anoetara ailegatu-takoan, gibelera egin omen zuen (*kar, kar... tele-sailetako irri enlatatuak hemen...*). Madrilen txotxongilo taldeari gertatutakoa ikusita, txiste txarrak berri!

Nabarmentzekoak



Ramon LATASA
Hil zela 25 urte bete dira

Sunbillako aizkolari handia 1991ko otsailaren 25ean hil zen. Baina herrian ez dute ahazteko eta bere omenez, aizkora jaialdi polita antolatu dute martxoaren 6an. Sarrera doan izanen da.



Patxi OLAZAR
Erremonteari adio

Hamahiru urte eta gero, profesionaletan bere azken partida jokatu zuen otsailaren 13an. Xanti Utergarekin bikote eginez 30-40 irabazi zien Koteto Ezkurra osabari eta Etxeberria III.ari.



Hasier LARRETxea
Liburu berria aurkeztu du

De un nuevo paisaje. Horixe da idazle arraiotarrak idatzi duen azken poema-liburuaren izenburua. Otsailaren 13an aurkeztu zuen Iruñean, Uxue Juarez olerkari eta lagunarekin batera.

Atzera begira → 2006-II-16 / TTIPI-TTAPA 416 zk.



Inauterien jatorriaz Juainas Paul Zubietako historialariarekin

«Eguneroko bizimodua iraultzeko neguko bestak dira inauteriak». Hala zioen Juainas Paul Arzak Zubietako historialariak duela hamar urte egindako elkarriketan. Izan ere, hainbertze teoria daude inauterien jatorriaren inguruan: «Hori bai ez dagoela jakiterik! –onartu zigun Juainasek–. Batzuk sorginkeria, inauteriak... paganismoaren zantzuak direla aipatzen dute. Badira horrekin lotzen duten hari batzuk eta litekeena da, baina horretan gelditzen gara. Batzuen interpretazioaren arabera, hartza ernatzen denean lurra ere ernatzen da. Ez dut ukatzen, baina ez dut inongo funtsarik hori horrela dela esateko ere».

ttipi-ttapa

Argitaratzailea Ttipi-Ttapa Fundazioa • Egoitza Koskontako bidea, 07-1 • 31770 LESAKA
Tel. (+34) 948 63 54 58 • Faxe (+34) 948 63 54 57 • info@ttipi.eus

Zuzendaria Aitor Arotzena Erredakzioa Gurutze Pikabea, Eneritz Iraola Publizitatea Usoa Vicente, Amaia Odriozola, Arantza Agirre Berriemaileak Juana Mari Saizar, Ainhoa eta Maider Ansa, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Ebeñike, Koro Iratzoki, Nerea Altzuri, Joseba Urroz, Irune eta Itsaso Elizagoien, Maider Petrirena, Markel Lizasoain, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Izaskun Goñi, Joana Guerendiain, Martin Bertiz, Nerea Tellebea, Mattin Larralde, Juan Mari Barriola, Joxean Ortega, Iñigo Imaz, Marga Erdozain

Fundazioaren Presidentea Pello Apezetxea Kudeatzailea Joxemanuel Irigoien Administrazioa Amaia Goia

Lege Gordailua NA-1324/85 • ISSN 1578-4673 • Tirada 6.000 ale

Erakunde laguntzaileak Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkart, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea

2016ko harpidetza sariak

| | |
|--------------------------------|------|
| Baztan, Urdazubi eta Malerreka | 34€ |
| Leitza | 20€ |
| Hego Euskal Herria | 40€ |
| Ipar Euskal Herria, Europa | 74€ |
| Amerika eta Australia | 124€ |

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



Bortzirietako Euskara
Mankomunitateak
diruz lagundua

MEKNA
MEZINASOIA KULTURA NAFARRA



Kolaborazioak

Doneztebe, euskalduna...

Joseba URROTZ

Ikusi nuen nik ere berriki ETB1n eman zuten *Herri txiki, infernu haundi* izena duen saioa. Sakontasun haundiko programa ez dela onarturik ere, zoritxarrez ETBko bertze hainbertze bezala, bere alde ona aipatu nahi dut. Holako saio bat, euskaraz eta Donezteben egitea ez da gauza makala, orain dela 30 urte gauzak nola ziren kontutan hartuz gero.

Ni neroni ez naiz ongi oroitzen, baina aunitzi entzun diet kontari nola egiten zieten burla doneztebarrek, inguruko bertze herritarrei, eta gehienbat euskaraz mintzo zirelako.

Halere, Donezteben bertan ere izanen zen bereizketa baserritar-nekazari zirenen eta komertzianteen artean.

Ez dut uste holakorik gertatu den leku bakarra izanen denik hau, seguraski Baztanen, Elizondo eta gainera-ko herrien artean antzeko zerbaite gertatu izanen da. Alegia, herri koxkorretan merkataritza pilatzen da, eta nonbait merkatariek euskararekin ez zuten aski euren eginkizunetarako. Edo akaso, merkatarizateak, nekazari izateak baino diru eta prestigio gehiago ematen zuenez (gaur egun igual ez hainbertze), kategoria nabarmentzeko erdaraz mintzo ziren. Entzuna da esaldi hura: *euskarakin baztanzubitik haratago etzoazi*.

Gaur egun Donezteben gazte gehienak euskaraz ari direla entzuten ditut, ez ordea orain dela 30 edo 20 urte. Baliteke gazte horien gurasoak inguruko herritarririk Doneztebera joanak izatea, eta ez dakit hori azken boladan gertatu den gauza ote den, azken 20 urtean nekazaritza jende aunitzek utzi baitu eta inguruko herriak ttikitzen ari dira oraindik.

Edozein moduz, denboran zenbat eta atzerago egin, orduan eta errespetu guttiago izanen zen gure hizkuntzarenaganako, eta nekazari herrietatik komertzianteen herrira jausten zirenak, guttienez bi aukera zituzten: hizkuntzari eutsi eta bazterketa eta guttiespena nabaritu, edo euskaraz aritzeari uko egin eta bertzeen pareko izaten saiatu.

Gauzak aldatu dira, ez euskararenaganako errespetuan bakarrik, gizartearen bertze eremu batzutan ere bai, gizakiaren garapen normala dela uste dut, baina beti ere lan haundia egin duten jende andanari esker. Gaur egun ETB1n agertu zen programa bezalako bat Donezteben egin izana, pauso haundia da; lastima euskararen baliogarritasunaren alde lana egin zuten batzuk ikusi ezin izan dutela.

«Gaur egun ETB1n agertu zen programa bezalako bat Donezteben egin izana pauso haundia da; lastima euskararen baliogarritasunaren alde lana egin zuten batzuk ikusi ezin izan dutela»

OSASUNEZ

Gripea (eta 2)

Lurdes ENETERREAGA (Doneztebeko Osasun Zentroa)

Gripea, urriaren eta otsailaren artean birus batek sortzen duen infekzio-gaixotasuna da. Hagitz kutsakorra da eta airez erraz zabaltzen da, leku itxietan gehien bat. Aitzineko alean gripea sendatzeko gomendioak eta konplikazioen bat dagoela susmatuz gero egin beharrekoak aipatzen ziren. Artikulu haren segida da honakoa.

Hauek eskatu behar dute egun bererako hitzordua medikuarekin:

- Haurdun dauden emakumeek.
- 2 urtetik beherako haurrek.
- Bihotzeko, arnas aparatuko, giltzurruneko, gibleko edo odoleko gaixotasun kronikoa, edo botikekin tratatzen den diabetesa, gaixotasun neuromuskularra edo loditasun morbidoa dutenek.
- Adina nagusiko pertsonak
- Transplanteengatik immunosupresioa dutenek, edo GIB/IHESA, barerik ez dutenek, edo botika immunosupresoreak hartzen dituztenek.
- 18 urtetik beherakoak, aspirinarekin tratamendu iraunkorra dutenek.

Halakoetan, joan edo deitu Osasun Etxera, eta eskatu egun bererako hitzordua.

KUTSATZEKO ARRISKUA GUTXITZEKO NEURRIAK

- Etxetik ez ateratzea.
- Ez joatea ez eskolara ez lanera, sintomak desagertu arte (4-7 egun).
- Eztula egitean, ahoa tapatzea.
- Erabilera bakarrek musuzapiak erabiltzea ahoa eta sudurra tapatzeko. Erabilitako musuzapiak zakarrontzira botu behar dira.
- Eskuak maiz garbitzea, urarekin eta xaboiarekin, batez ere eztula edo doministikua egin ondoren.
- Ahal dela, ez jarri beste pertsonen parez pare.
- Gaixo dagoen ume bat besoetan hartuz gero, umearen kokotsa zure sorbalda aldera jarri, eztula egiten duenean zuri aurpegira deus ere ez botatzeko.
- Maiz haizeberritu eta garbitu denek erabiltzen dituzten tokiak (komunak, sukaldea, egongela, etab.).
- Garbi eduki etxea, baita gaixo dagoenak erabiltzen dituen arropa eta gauzak ere, ohiko neurri higienikoak aplikatuz.
- Hobe da gripeak jotako gaixoei bisitarik ez egitea. Bisita egin beharrean, telefonoz deitzea da hobereana.

GAIXOA ZAINTZEN DUENARENTZAKO GOMENDIOAK

- Heldu bakar batek zaindu dezala gaixo dagoena.
- Gaixoa ez dadila egon ume txikiekin edo konplikazioak izateko arrisku handiagoa duten pertsonekin.
- Erne ibili zuk edo zure familiako inork ba ote duzuen gripearen sintomarik.
- Familiako bertze norbaitek gripearen sintomarik baldin badu, segi aholku hauei, eta, dudarik izanez gero, zure zentroko erizainarekin telefonoz kontsultatu.

Irakurleak mintzo

Nire ardura ere bada

(Goldatz, Berako Emakume Talde Feminista)

Inauterietatik bi aste iragan diren honetan, anitzeri pasatu izanen zaizue bestak utzitako arrastoa... Berakoak, aurtan ere koloretsuak, parte hartzaileak eta alaiak izan dira. Adin eta mota guztietako herritarrentzako lekua izan baita.

Gure sormena lantzeko aukera paregabea eskaintzen digute inauteriek eta sormena, pertsonon garapenerako gakoa izanik, zergatik ez hortarako erabili, behin eta berriz betiko leku berean zangotrabatu beharrean?

Inauteri astelehenean ikusi eta pairatutako adibide sexistei buruz ari gara, orgak, jarrerak, hitzak... Baina adibide beretsuak inauteri guztietan behin eta berriz errepikatzen dira, beti leku berean zangotrabatzen garen hari kokorak. Bestondak luze irauteko arrazoiak...

Mozorro dantza horren gibelean, bada ausart eta eroso sentitzen denik. Berezko izaera lotsatiaren gordailu paregabea baita egun hauek eskaintzen digutena. Kolore eta umore saltsa horren baitan ordea, guztia ez dazilegi. Badire besta eguna izatea soilak mugitu arazi ezin dituen eta emakumeon errespetuan oinarrituta dauden zenbait marra. Behin marra hoiek zapaldu edo gurutzatzean, mikro-matxismoa edo sexismoari buruz solas egiten ahal dugu.

Egun, ohituta gaude emakumeon aurkako eraso bortitzak salatzea, bortxaketa eta erahilketa kasu. Baina orain arte, ema-

kumeon rola lotsa eta erruz bilduta zegoela barneratu eta sinetsarazi badigute ere, hemen aitzinerat, egoera mikromatxistez jabetu, hauek plazaratu eta salatu eginen ditugu. Sotilagoak direla iruditu arren, jarrera hoiek ere gure duintasuna eta emakumea bere osotasunean errespetatu eta onartzearen aurkako ekintzak direlako. Inork ez genuke nahi gure herria, Gasteiz, Tolosa, Altsasu eta Lantzen gertatutako eraso sexisten zerrendan sartzerik.

Egunen batean, jarrera eta eraso sexistarik gabeko inauteriak ospatuko ditugu eta mozorro besta honetatik at, gure herriko edozein ospakizunetan ere, sistema patriarkal inposatzen dizkigun genero estereotipoak ez ditugu hauspotuko ez erabili. Horretarako aukerak egon, badaudelako.

Ziur gaude, besta egunetan bezala egunerokoan ere Beratarrok, bakoitzak gure ahalegintxo egiteko gai garela, emakume izate soilagatik inor baztertuta, zapaldua, iraindua, gutxietxia edo humilatua ez izateko. Bien bitartean, egoera zapaltzaile hau aldatzeko ardurak guztionaz izaten jarraituko du, nola gizonala emakumeona.

Eskerrak Manttali Bortzirietako Guztiok taldearen izenean

Nagore ARRETxea (Guztiok taldearen izenean)

2016ko urtarrilaren 9an, Xabier Zubieta, Loro Pikabea eta Xabier Saralegiren omenez, Be-

ran IX. Mendi eguna (S. Barbarako igoera) ospatu zen. Goizean, Manttali taldeak eskalada antolatu zuen gaztetxoentzat, non ezintasunak dituzten gure seme-alabak ere, parte hartze- ra gonbidatuak izan ziren. Hori guztiagatik, Guztiok taldeko gurusoak, eskerrak eman nahi dizkizuegu, gure seme-alabak horrelako ekintzetan integratzea- gatik eta baita, izan genuen har- rera goxoarengatik. Pixkanaka- pixkanaka horrela lortuko baitu- gu, gure seme-alabak ahalik eta gizarteratuen egotea.

Eskerrik asko Manttali, Bortzirietako Guztiok taldearen par- tez!!

Eskerron

Mari Jose ARREGI (Manuelen familia osoaren izenean)

Lerro hauen bidez, gure familia osoaren izenean, eskerrak eman nahi dizkiet gure aitari, Manuel Arregi Goñiri, bere 100. urte- muga eskainitako omenaldietan parte hartu zuten guztiei.

Koruko emakumeek etxean eskeinitako kantak, mahai inguru- an egin genuen berendua, igande- an ospatutako mezan agertu zen jendetza, ondotikan alkate- ak esandako hitz hunkigarriak, herriak oparitutako makila eta txapela, aitak hainbeste maite izan duen Arkupeak Elkarteko kideen oroigarria, Kalisoro jubila- tuen elkartasuna, aita zorion- tzeraz hurbildu ziren guztiak... ez ditugu ez erraz ahantziko.

Denon artean bi egun ahazte- zin eta hunkigarri bizi arazi zeni- guten. Horregatik guztiagatik ba- da, esker mila bihotz-bihotzez.

Berako inauterietan

Esther CARRIZO CARRETERO

“Las amistades son como las tetas, algunas son grandes, otras se caen, y muchas son falsas”

Hori ikusi dugu Berako osta- tu batean aurtengo inauterietan. Adibide bat bakarrik hartzeko, horrelako bat baino gehiago aur- ten ere bai ageri direlako.

Kuriosoa da nola ttittiak mespreziatuak dira edozein mo- mentutan eta edozein lekutan. Kuriosoa ttittia edo amaren bu- larra jaio eta gero gure soste- ngu bakarra denean. Biberioiak daude, noski. Baina amaren bu- larra ez da soilik sostengu fisi- koa, baizik eta elikadura emo- zionala ere bai. Nola hori ahan- tzi daiteke? Edozein pertsona bizi izan ditu guttienez 6/7 hila- bete emakume baten sabelean, normalean 9 hilabete. Sabeletik bularretara. Emakumearen gor- putza ama lurra da. Zergatik ha- in gaizki tratatu emakumea eta Ama Lurra? Non dago arazoa? Benetazko galderak dira ez du- dalako egoera hau ulertzen. Eta ez erran ez dela hainbertze inau- terietan gaudelako, irriarazteko dela. Nola hartuko genuke inau- terietan, taberna bateko pare- tan VIVA FRANCO idatzia ikusiz gero?

Nere ttittiak ez dira handiak.

Nere ttittiak denboraz eror- tzen dira modu normal batean eta normaltasunez hartzen dut grabitate lege hori.

Nereak ez dira silikonazko ttit- tiak.

Eta batez ere nere adiskide- ak ez dira faltsuak, zeren faltsu- ak direnak ez ditut adiskidetzat hartzen.

IRAKURLEAK MINTZO Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta: info@ttipi.eus

Posta: **Koskontako bidea, 07-1 31770 LESAKA**

Tel.: **(0034) 948635458** Faxa: **(0034) 948635457**



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

Prentsatik bildutakoak



«Gure helburua da belaunaldi berriak tradizio honekin jarraitzea, bertsoak egiten jakitea, jolas- tea. (...) Alderdi ludikoa lantzen dugu bat-batean aritu oinak emanda, bertso antzerkiak... Lesakan zorionez aukera aunitz sortzen zaizkigu, deitzen gaituzte ikuskizunetan parte hartzeko... Horietan aunitz ikasten da...».

Estitxu AROZENA

Lesakako bertso irakaslea
D. NOTICIAS 2016.02.01



«De un nuevo paisaje argi-itzalez betetako liburua da. Berarekin, munduaz eta nere ingurukoaz solasteko beldur gutiago sentitu dut, beharbada zenbait gai ez nituelako ukitu nahi, espezialista ez naizela uste bainuen».

Hasier LARRETXEA

Arraiozko idazlea
D.NAVARRA • 2016.02.16

11 galdera labur

Ileapaintzailea zara, afizio edo ofizio?

Ttikitatik atentzioa eman dit ilea-paindegiak eta afizio ofizio bihurtu dut.

Aixturrak edo guraizeak?

Aixturrak-aixturrak...

Nori moztuko zenioke gustura ilea?

Edozeini. Askotan, karrikan nuaie-la edo telebista ikustean, pertsona batek atentzioa ematen dit. Ez dakit ileagatik den, bere itxuragatik den edo zergatik, baina gogok sentitzen ditut pertsona zehatz horri ilea mozteko. Eta Sofia Loreni ere, aski gustura egiten nioke zerbait.

Eta mingaina?

Ba moztu baino, orraxtu edo mol-datuko nituzke.

Buruko itsasurak disimulatze-ko orrazkerarik aproposena?

Bakoitzaren itsasuraren pare-ko orrazkerara moldatzen naiz!

Belarririk moztu duzu nahigabe?

Ez, ez. Oraindik ez behinik behin!

Zer da zuretzat egun eder bat?

Gustatzen zaizkiten gauzak egiten ditudan eguna. Gustuko du-dan jendearekin egoten naizena-n, kontent eta zorionsu sentitzen naizenean.

Eta gau eder bat?

Lo gutti egindako gaua, besta edo giro ederrean pasatutakoa eta lo egindako gaua ere, dudik gabe!

Beteko ez den amets bat?

Nere amatxi Karmeneri ru-loak jartzea.

Eta bete daitekeen bat?

Nere ofizioan aitzine-ra egitea.

Legasako txokorik ederrena?

Ugalde bazterre-ko edozein xoko, Kukuko mahaia, zuz-bia, udako harrizko ir-la... Legasa xoko ede-rra da.



Eneko ETXART → Legasako ileapaintzailea

sarobe[®]
gozotegia okindegia

1º de eztegará 25 bajo
31780 Bera (Navarra) t.948 63 08 99
www.sarobe.net

MARITX

Legia, 23-BERA Erakusketa, Proiektu eta
T. (0034) 636 617 450 Instalazio Elektrikoak

LABEZAR

Tel: 948 631 076 · BERA

BEHOBIA
Pneumatikoak eta zerbitzuak

Marka guztietako gurpilak
nitrogenoarekin puztea dohainik

Mekanika orokorra
(olio aldaketa, frenoak, distribuzioak,...)

Alineazioak

Europa kalea, 18 - ZAISA I (Behobia) IRUN
Telf: 943 63 56 01 E-mail: neumaticosbehobia@gmail.com

okaNe

HARATEGIA / URDAITEGIA
Enaut & Nekane
Tfno/Fax: 948 630 018 Kanttonberri 12 - BERA

BRANDONEA, S.L.
PAGURAK ETA BARAZIAK

BILTEGIA 948 630 102
FAUSTINO 647 810 152
Bidasoa, 76 - atea 21-22
31780 BERA

KSAT
TELEKOMUNIKAZIOAK

- TDT instalazioak
- TB instalazioak (satelite, lurrekoak)
- Instalazio indibidualak eta kolektiboak
- Satellite bidezko interneta

ANDONI LASAGA APEZTEGUIA · T. 637 40 86 40 · 31780 BERA · andonimabako@gmail.com

GIZARTEA

GIZARTEA → MARTXOAREN 5EAN LESAKARA

Sagardotegira irteera eta Euskalkide prestatu ditu Solaslagunak



UTZITAKO ARGAZKIA

Gan den urtean, Solaslagunak Elizondoko Zahar Etxeko bizilagunekin egindako Euskalkide saioetako batean.

Berako eta Elizondoko Zahar Etxekoekin eginen dituzte mintzapraktikak

dute martxoaren 5ean eta bertetik, Euskalkide Elizondoko eta Berako zahar-etxeetan.

Nafarroako Mintzapraktika egitasmoaren baitan Lesakako Lindurrenborde sagardotegira eginen dute martxoaren 5eko ateraldia. Sagardotegia eta autobusaren prezioa 33 eurokoa da eta izen eman behar da 610 920673 telefonoan edo solaslaguna@topagunea.org helbidean. Eskualdeko Solaslagunak, Iruñerriko Mintzalu-

gnak, Lizarbeibarko Mintzakideak eta Baztan-Bidasoko euskaltegiek antolatu duten saioa parte-hartzailea izatea nahi dute, harremanak lantzeko, euskal sareak hedatzeko eta gure inguruan eragin soziala izateko ere balioko du.

Autobusa Lizarraldekotik etorriko da, Baztango (Elizondoko plazan 13:15ean) eta Malerre-kako jendea (Doneztebeko bus geltokian 13:40ean) hartu eta Lesakara ailegatuko da eta 14:00etan izanen da Le-

sakan. 20:30ean eginen dute Lesakatik buelta.

EUSKALKIDE

Euskalkideri dago-kionez, bertako mintzamolde jatorrak ikasteko eta horretan aritzeko saioak dira, Baztan-Bortzirriak-Malerrekako Solaslaguna egitasmotik abiatu dena. Helburu zabalago batzuetan ere kokatua dago, adinero pertsonekin hartuemanak sortzea eta ondare inmaterialaren eramaleak diren neurrian, hauen esperientzie-

taz ikastea, erraterako.

Berako San Jose Zahar Etxean astean ordu-betez elkartuko dira, otsailaren 27tik maiatzaren 7ra bitarteko larunbatetan, 11:00etatik 12:00etara.

Elizondoko Francisco Joaquin Iriarte Zahar Etxean, berriz, hiru saio eginen dituzte martxoaren 4, 11 eta 18-an, ortziral arratsaldeko 5etatik 6etara. 610 920673 telefonoan edo solaslaguna@topagunea.org helbide elektronikoan eman izena.

TTIPI-TTAPA

Urtero bezala ikas-turtean zehar hainbat saio jarriko ditu martxan Solaslaguna egitasmoak. Urteko lehenbizikoak hauek izanen dira: alde batetik, sagardotegira irteera eginen

ETXEBIZITZEN SUSTAPENA LESAKAN



Ezaugarriak:

- 75 m², distribuzioa bezeroak aukeran
- Oztopo arkitektonikorik gabekoa
- Etxebizita bakoitzak berezko garajea izanen du

135.000€

S AROBE
ERAKUNTZAK

info@sarobe.eus

www.sarobe.eus

639 623 473

mmstudio-k diseinatua
www.mmstudio.info · 651 776 998

GIZARTEA → EMAKUMEAREN EGUNAREN HARIRA

Aste Morea antolatu du Goldatz taldeak

Emakumearen Egunaren harira prestatu ditu Emakume Talde Feministak

TTIPI-TTAPA

Emakumearen Nazioarteko Egunaren harira Aste Morea antolatu du Goldatz Berako Emakume Talde Feministak.

Martxoaren 4an, ortziralekin, Pintxo-pote morea egingen dute. Martxoaren 5ean, larunbat arratsaldeko 5etan, zoru pelbikoari buruzko tailerra egingen dute Beralandetan. Martxoaren 8an, 20:00etan kontzentrazio zaratatsua Mukixu zubian. Martxoaren 11n, *Susanaren iraultza* antzezlana ikusgai izanen da 20:30ean Katakua ostatuan. Martxoaren 12an, larunbatean 14:00etan bertso bazkaria izanen da Zalain jatetxean Onintza Enbeita eta Nerea Elustondorekin. Ondotik, triki-poteoa herriko karraketan. Gauerditik aitzinera, DJ Rakaraka eta DJ Maikarmens Katakua ostatuan.

Aipatzekoa da, Goldatz taldearen eskariz, *Berak ez du eraso sexistarik onartzen* adierazten duten kartel moreak jarriko direla herriko sarrerara guztietan. Ahobatez hartu zuen erabakia Udalak.

Haziaren Eguna

Bidasoko Hazien Sareak antolatutako Haziaren Eguna bi saiotan egingen dute aurten. Bigarrena Beran izanen da martxoaren 5ean. 10:30ean hasiko da Rikardo Baroja eskolako idorpean. Han mahai batzuk izanen dira, ekartzen diren haziak paratzeko, eta noski, han direnak nahi dituenak hartzeko. Mahai horien inguruan, hazi bakoitzari buruzko ezagutzak elkarbanatuko dituzte: Nondik lortuak diren, noiztik egiten dituzten, horietatik sortzen diren landareak nolakoak diren, zein bere-

zitasun dituzten... Ha maiketakoa egiteko aukera izanen dute, etxeko artoa eta barazkiak baliatuz prestatutako janariak izanen baitituzte.

Eguerdi aldera Solasaldi Irekia ere egingen dute. Bakoitzak zer ikasi edo zeri buruz mintzatu nahi duen erran ahal izanen du, eta gai horien arabera taldetan bildu eta arituko dira.

Besta borobiltzeko, bazkaria egingen dute: Norberak etxean prestatutako ilarrak eta barazkiak ongi etorriak izanen dira, eta antolatzaileek prestatutakoarekin batean, bazkari eder bat osatzea espero dute.



Ba al zenekien

Goiko herriko argazkilaritari eta Luis Irazokiri Gure Txokoan futbolaren alde egindako lanarengatik eta lortutako kirol merituaren zilarrezko dominarengatik eskerrak eta errekonozimendua eman dizkietela udalak.



UTZITAKO ARGAZKIA

Manttale saritu dute Kirolprobak Galan

Kirolprobak galan, Manttale Mendi Lasterketa Taldea saritua izan da, 10. urteurrena ospatzeagatik eta 10x100 erronka lortzeagatik (azkenean 134 lasterketetan parte hartu zuten Manttaleko kideek). Donostiako Aquariumean ospatu zen eta Ibai Iturriak jaso zuen, talde guztiaren izenean, sari hau. Bertan Kirolprobak webguneak antolatzen dituen txapelketetako lau irabazleei ere saria eman zitzaizen.

FLASH

UEUko ikastaroa Estitxu Fernadezekin

Udako Euskal Unibertsitateak (UEU) bere udaberriko eskaintza aurkeztu du. Otsaila eta maiatza bitartean 4 ikastaro eta 4 hitzaldi antolatu ditu Nafarroa osoan. Hitzaldi horietako bat Labiaga ikastolan izanen da. Estitxu Fernandez, Lesakako psikologo, irakasle eta telebista aurkezleak *Nola bizi nahi dut?* solasaldia eskainiko du.

Haurrentzako ipuin kontalaria

Amaia Elizagoien ipuin kontalariak *Ameli, ipuinen jostuna* haurrentzako saioa eskainiko du martxoaren 4an, ortziralean 17:30ean herri liburutegian, 4-6 urte bitarteko haurrei zuzendua.

Klarinete Topaketa martxoaren 5ean

Isidoro Fagoaga Udal Musika Eskolak antolatuta, Klarinete Topaketa egingen dute martxoaren 5ean, larunbatean 12:00etan Kultur Etxean.

Bortzirietako Emakumeen Mendi Itzulia

Bortzirietako Oinarrizko Jendarte Zerbitzuen Mankomunitateak antolatutako Bortzirietako Emakumeen VII. Mendi Itzulia Beran egingen da martxoaren 13an. 09:00etan Mukixu zubitik aterako dira; 13:00etan elkarretaratzea leku berean eta 14:00etan bazkaria Zalainen (Prezioa: 20 euro). Izen emateko azken eguna martxoaren 10a izanen da. Horretarako, 948 635036 telefonora deitu behar da.

F. LANCHAS
Akutxiladorea eta bernizatzailea
Parket eta parket flotatzailea
jartzea
Mota guztietako zolak
Tel: 948 630 735 M: 607 406 781

Alberto RETEGI
abokatu
abokatu
© 948 630 763 · Altzate, 17 · BERA

BAR Botxo OSTATUA
Zalain • BERA • 948 630 052

LESAKA

GIZARTEA → OTSAILAREN 27AN

Ikastetxe eta jangeletarako lehen sorospen ikastaroa egingen dute Harriondoan

Bortzirietako Guztiok Taldeak eta Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentuak antolatu dute

txelena pediatriako erizainak eta Isabel Irigoien Osasun Zentruko gizarte langileak eskainiko dute ikastaroa. Izen ematea otsailaren 25era bitarte egin daiteke Bortzirietako edozein kontsultatan edo cs/lesaka@cfnavarra.es helbide elektronikoa, 10 euro ordainduta.

Aitor AROTZENA

Ikastetxeetan eta jangela kolektiboetan lehen sorospen ikastaro teoriko-praktikoa antolatu dute Bortzirietako Guztiok taldeak eta Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentuak, Udalaren eta La Cai-xaren Gizarte Ekintzaren laguntzaz otsailaren 27an Harriondoa Kultur Etxean, nahi duten pertsona guztiei irekia.

Marcos Ruiz medikuak, Usoa Zelaieta erizainak, Belen Compains pediatriak, Leire Mi-

EGITARAUA

- 08:45etik 09:00etara dokumentazioa biltzea eta ikastaroaren aurkezpena.
- 09:00etatik 09:45era mediku protokoloen aurkezpena.
- 09:45etik 10:30era eriazaintzako protokoloak.
- 10:30-10:50 atsedenaldia.
- 10:50-12:30 Bihotz-biriketako bizkortzea eta tailer praktikokoak. Osasun intereseko errekonozimendua eskatua.

OTSAILAREN 27AN, 20:00ETAN HASITA

'Arozenatarren ttunttuna' txistu emanaldi berezia Udaletxean

TTIPI-TTAPA

Herriko txistulari taldeak antolatuta, *Arozenatarren ttunttuna* emanaldia izanen da otsailaren 27an, larunbatean 20:00etan Herriko Etxean.

Oiartzungo Arozena anai hirukoteak, txistu, gitara eta perkusioa lagun, txistularien errepertorioko zenbait doinu eskeiniko dituzte, beraien umore eta abilitadeen galbahetik pasa ondoren.



ARGAZKIAK: A. AROTZENA

Inauteriak giro ederrean joan dira

Giro bikaina izan da aurtengo inauterietan. Larunbatean ikusi ziren lehen mozo-roak eta igandean zakozarrek egin zituzten beraien harat-honatak, Goitarrek eta Fraindarrek bezalaxe. Astelehenean karroza ikusgarriak plazaratu ziren.



UTZITAKO ARGAZKIA

Patti Sanz Feito Euskadiko txapeldun pertiga jauzian

Bizpahiru urte daramazki Patti Sanz Feito lesakarrak Irungo Txingudi Atletismo Taldean entrenatzen, Mari Carmen Oiartzun eta Maialen Oiartzun prestatzaileekin. 13 urte egin ditu eta aurreko hasi da konpetitzen, kadete kategoriako lehen urtean. Otsailaren 13an Donostiako Anoeta belodromoan jokatu zen Euskadiko atletismo txapelketan, pertiga jauzian txapeldun izatea lortu zuen, 2 metro eta 10 zentrimetroko jauziarekin.

IRU BIDE
Erretegia · Asador

Biurrana, 3 · Lesaka
Tel: 948 637 127

Lentzeria
Bainujantziak
Mertzeria
Jantzi tipikoak
Peñen blusak

kattagorria
lentzeria mertzeria

Behoko plaza 10 31770 Lesaka
T. 948 627 514

JAIÑE-COXOTEGIA

948 630 786
Altzate, 21 · BERA

GIZARTEA → MARTXOAREN 6AN EMANEN DUTE ETBN

'Herri txiki infernu handi' programa grabatu dute

Iruñe ELIZAGOIEN

ETB1n igande arratsetan izaten den *Herri Txiki Infernu Handi* programarako grabaketa egin zuten otsailaren 8an Etxalarren. Herriko hainbat jende ezberdinekin egin zituzten grabaketak: Rogerrekin ingeleseko klasean, Elizagoiatarrekin haragia erretzen, Jubilatua Larraburuan, Itsasorekin trikitixa klaseak Iriondoan, Milagrosekin Akokan solasean, Laurarekin Usategietan, kokxor biltzen frontoian eta bertze hainbat gehiago. Otsailaren 18an Elizan egin zituzten ekitaldian grabaketa, bideo

proiekzioa eta monologoak Zuhaitz Gurrutxaga eta Mikel Pagadiren eskutik. Okerrik ezean, martxoaren 6an 21:45etatik aitzinera ETB1n ikusgai izanen da Etxalarren grabatutako saioa.

Haurrentzako zinea Kultur Etxean

Otsailaren 12an *Kiriku eta sorgina* haurrentzako zinea eskaini zen Kultur Etxean. Hurrengo filma otsailaren 26an, izanen da arratsaldeko 5etan: *Momodenboraren atzetik*. Sarrera doakoa da.



Ba al zenekien

Nafarroako zinema dokumentaleko Nazioarteko jaialdiaren barrenean *Navarra 4 estaciones Barojari omenaldia* dokumentala eskaini zutela otsailaren 9an Baluartan. Film honen zati bat 1971an Etxalarren grabatua da, Usategiak agertzen dira.



ARGAZKIA: XABIN FERNANDEZ

Inaxi Etxeberria, familiak eta udal ordezkariak inguratua.



ARGAZKIA: IRUÑE ELIZAGOIEN, JON MITXELTORENA, IRATI LUJUA, JABIER IRIARTE ETA UTZITAKOA

Giro ederrean pasa dira inauteriak

Aurreikusitako ekitaldi guztiak beteta, besta giroan pasa dituzte herritarrek inauterietako lau egunak. Etxalarko Xelebreak ere inauterietan elkartu ziren.

XAGU
LIBURUDENDA
Tel. / Fax 948 638 232
Koskontako bidea, 7 (osasun-zentroaren parean)
31770 LESAKA

- LIBURUDENDA
- KOLORETAKO FOTOKOPIAK
- USBik EGINDAKO INPRIMAKETAK
- ESKANERRAK
- ESKOLA MATERIALA
- INFORMATIKAKO MATERIALA
- BULEGORAKO MATERIALA
- EGUNKARIAK, ALDIZKARIAK

SUKALDEKO ALTZARIAK
ARMAIRU ENPOTRATUAK
KOLTZOIAK - ETXETRESNAK

Erakusketa Bereau etxean

BORTZIRI
UNSION ANAIK

Erakusketa: Bereau Etxea LESAKA Nafarroa
T. 948637266 M. 607226891
bortzirialtzari@telefonica.net

José I. Gonzalez Enguita
pinturak
barrukoak eta fatxadak
tel. 666 235 466

ARANTZA

GIZARTEA → BI URTEREN ONDOTIK

Martxoaren 5ean Ekaitza Elkarteko Zuzendaritza Batzordea berrituko dute

Boto gehien hartzen dituzten 10 bazkideek osatuko dute junta berria

Nerea ALTZURI

Bi urte pasatu direnez, junta aldatzeko ordua ailegatu da Ekaitza Elkartean.

Elkarteko bazkideek gutun bat hartu dute izen zerrendarekin eta martxoaren 4a bitarte hamar kide aukeratu beharko dituzte junta berria eratzeko. Azken Batzar Orokorrean onartu bezala, azken hiru Zuzendaritza Batzordeetan egondako kideek junta berria ez egoteko eskubidea izanen dute.

Aukeraketa egin ondotik, aipatu orria elkarteko buzoian sartu edo juntako norbaiti eman

beharko diote. Biharamunean, martxoak 5, oraingo juntakideak bildu eta botoak kontatuko dituzte. Boto gehien biltzen dituzten hamar bazkideek osatuko dute elkarteko Zuzendaritza Batzorde berria. Gaur den egunean, Ekaitza Elkarteak 95 bazkide ditu.

Sagardotegira ateraldia

Sagardotegien sasoiari gaudenez, aurten ere ateraldia antolatu du Gazte Asanbladak martxoaren 12rako. Autobusa 12:30ean abiatuko da aparkalekutik eta itzulerara 03:00etan paratu dute. Txartelak herriko ostiatuetan daude 7 eurotan eta otsailaren 29ra arte erosten ahal izanen dira.

Norbaitek sagardotegira autobusez joateko intentziorik ez badu, 686 165369ra deitu behar du.



ARGAZKIAK: BEA TABERNA

Jose Luis eta Inaxio txapeldun musean

Otsailaren 14an, Euskal Herriko Mus Txapelketaren baitako kanporaketa egin zen Ekaitza Elkartean. Sei bikotek parte hartu zuten eta Inaxio Larretxea eta Jose Luis Iparragirrek herrialdeko finalerako txartela lortu zuten. Joan den larunbatean, zazpi herrialdeetako finaleko partidak jokatzekoak ziren eta Nafarroa garaiari dagokionez, Iruñean musean aritzeakoak ziren. Lerro hauek idazterakoan, ez dugu datu gehiagorik. Txapeldunek txartelaz gain, elkartean lau otordu eta botil ardo bana eraman zituzten. Azpitxapeldunak Eusebio eta Patxi izan ziren. Ekaitza Elkartean bi otordu eta botil ardo bana hartu zituzten sari gisa. Zorionak!

'Neskatoak' dokumentala ikusteko aukera izanen da martxoaren 12an Baskulan

Garai batean neskato joan ziren emakumezkoekin solastuta, *Neskatoak* dokumentala egin du Jon Abril beratarrak. Dokumental hori herrian ikusteko aukera izanen da martxoaren 12an, 19:30ean Baskulan. Protagonisten artean bi aranztar ageri dira: Joxepa eta Carmen Alzugarai Lazkano. Joxepak 40 urte egin zituen Hendaian lanean eta ahizpa bi urtez joan zen sasoi egitera.



aterpe
albergea jatetxea ostatua

T. 948 634 179
ARANTZA
www.arantza.net

E D A R I A K

MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel.: 948 63 10 27 - Fax: 948 62 52 11
tabernabera@gmail.com
www.tabernaedariak.com

Bidasoa
GASOLINDEGIA

A, B eta C motako GASOLIOA ETXERA
24
ORDUZ

Alkaiaga Industrialdea, 4. LESAKA · T. 609 446 693

ZUBIONDO
Jatetxea

sagardotegia jatetxea

Alasta karrika
BERA NAFARROA

Tlf: 948 625 472

ttipi txartelarekin
beti irabazten da!

ttipi txartela

Miren IPARRAGIRRE HUALDE

72673111-B

epemuga 04/2016

Zk. 123456

ttipi-ttapa

DESKONTUAK, ZOZKETAK...
TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
MUSUTRUK
-%80ko DESGRABAZIOA
ERRENTA AITORPENEAN
Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:

TTIPI-TTAPA

koskontako bidea 7 LESAKA

T 948 635 458 | F. 948 635 457

info@ttipi.eu

erran.eu

ZOZKETAK

**655. ALEKO
IRABAZLEAK:**

5 sesioko bonoa Toki Ona Berako Udal kiroldegia
Sabino Korta | Bera

Onddo ta punto kamiseta bat
Jose Luis Arregi | Donamaria

Ibaizabal "Hildako bizidunen itsas bidaia" liburua
M^a Lourdes Maia | Elizondo

Ibaizabal "Faraoiaren gordelekua" liburua
Luis Baraibar | Leitza

Sorginen lezeak 2 sarrera
Fco. Mari Retegi | Eratsun

CD Pirritx, Porrotx eta Marimotots eta bomberenea
Leire Hualde | Orbaizeta

Gu ta gutarák cd 1 Lanku
Manuel Mitxeltoarena | Doneztebe

Zorionak!!

**Olaia
Bazar**

LEITZA | %10, 30€tik gorako erosketetan

**ELBETEko
POSADA**

ELBETE | %10, kartan 30€tik gora

txinelka

LESAKA | %10

POTTOKI

ELIZONDO | %5, oparitzeko
artikulu txikietan

cenor

ALZURI

ELEKTRIZITATEA eta ETXETRESNAK

LESAKA | %5, etxetresnetan

Amaya Picabea

CENTRO DE ESTILISMO E IMAGEN

DONEZTEBE | %5, kosmetikan
%10, oparietan 50€tik gora. Promozioan ez

KULUNKA

LEITZA | %5, 30€tik gorako erosketetan

**LOTEA
Martiko**

www.martiko.com



BUATXABAL™
Basque Clothing Co.

**KAMISETA BAT
Buatxabal**

www.buatxabal.eu



2 SARRERA

Lesakako Udal Kiroldegia
www.lesakakoudalkiroldegia.com

2 LIBURU | EREIN argitaletxea

Zontzia, Mikel eta Mikaela

www.erein.eus



2 CD | MAUKA musikaginta

the friday's Eratu

www.maukamusik.com



AQUARIVM



2 SARRERA

Donostiako Aquariuma
www.aquariumss.com

IGANTZI

OSPAKIZUNAK → MAIATZAREN 22AN EGINEN DA

Merkatua prestatzen hasi da Euskara Batzordea

Auzoen
errotulaziorako
erabiliko da
dirua

TTIPI-TTAPA

Aurten Euskara Batzordeak berriz antolatuko du merkatura, maiatzaren 22an. Beraz, herritarrei eskatzen zaie merkatu horretarako egiten ahal dituzten aportazioak, ematen ahal dituzten puskak... altxatzen joateko. Aurtengo merkaturan bilduko den dirua errotulazio kontuetarako izanen da berriz. Izan ere, auzoetako errotulazioa behar bezala bukatzea falta da, eta gainera herriko ikuspegia izanen duen panel bat ere egin nahi da.

Horrez gain, batzordeak azpimarratu nahi du merkatu honek duen garrantzia horrelako

proiektuak aitzinera eramateko. 2013an 3.000 euro bildu ziren merkaturan, eta horri esker Igantziko Gida berri ahal izan zen, etxeen errotulazioa martxan paratu zen eta auzoen errotulazioa ere egin ahal izan da, baita kultur egunetako hainbat gastu ordaindu ere.

AUZOEN ERROTULAZIOA

Dagoeneko paratzen hasiak dira auzoetako panel berriak. Lehengo panelak 1999an paratu ziren, eta zaharkituak gelditu zirenez, batzordeak horiek berritzea pentsatu zuen. Estructura berak probestu dira, eta mapak berritu dira. Proiektua udalak finantzatu du, baina horretara bideratu da Euskara Batzordeak 2013an antolatu zuen merkaturan bildutako diruaren zati handiena.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Auzolanari buruzko saioa grabatu du ETBk herrian

Otsailaren 6an ETB1eko kamarek hartu zuten herria, Ibon Gaztañazpi aurkezle ezaguna gidari zutela. Auzolanari buruzko programa berri bat martxan jartzeko asmoa dute, eta lehenbiziko programa Igantzin grabatu zuten. Abenduan suteak erre zuten Frain mendiaren zati batean landaketa bat egin zen, eta hori izanen da programaren oinarria.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Euskara Batzordeak antolatu zuen azken merkatura.

LARRALDEA
eta
LINDDURRENBORDA
Baztan Bidasoako sagardotegiak

Dolarea
Txotx denboraldi irekiera urtarrilaren 23an
Eskualdean egindako sagardoa

LARRALDEA | Telleria auzoa · LEKAROZ | 948 452121 · 626 494317
LINDDURRENBORDA | Nabaz auzoa · LESAKA | 948 637212

BERA
KATEA BIKE

BIZIKLETEN
SALMENTA
ETA
KONPONKETA.

Eta orain,
GIMNASTIKA
ETA FITNESS
MAKINAK,
bizikleta estatikoak
lasterketako zintak
...

Kanttonberri 1, BERA
948 631 218
kateabera@telefonica.net

MASSIMO ORBEA MERIDA SCOTT BH

zalain
JATETXEA RESTAURANTE

Zalain Auzoa z/g
31780 Bera
t. 948 631 106
w. www.zalain.info

zalain

GIZARTEA → OTSAILAREN 15EKO BILERA

Aldaketak izan dira eskolako Guraso Elkartearen

Kontuak ere onartu dituzte

Maidar PETRIRENA

Guraso elkarteko bilera egin zen otsailaren 15ean. Orain arte junta otsailean aldatzen zen, baina bilera batean urri- an egitea erabaki zen. Duela bi urte otsailean sartu zirenek orain utzi dute junta: Silvia Martinez Duque, M^a Sol Sanchez Hernandez eta

Nere Petrirena Gorosterrazuk. Urrira bitarte Rakel Urtxegi lehendakaria, Ana Gartxitorena lehendakariordea, Estitxu Arretxea idazkaria eta Koro Zelaieta Joseba Gartzia bokalal gel- dituko dira.

Eguberrien errepa- soa ere egin zuten eta 2015eko kontuak ere onartu zituzten. Bukae- ran Haur kantu jaialdi- ri buruz hitz egiteko tar- tea hartu zuten.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Latasaren heriotzaren 25. urteurrena gogoratzeko aizkora saioa

Ramon Latasaren heriotzaren 25. urteurrena dela eta omenaldia eginen zaio herrian martxoaren 6an. Goizeko 11etan meza izanen da eta ondotik aizkora apustua. Eguraldiak laguntzen badu, Ramon Latasa plazan izanen da era txarra egiten balu, berriz, frontoian. Omenaldian Patxi Astibia (73 urte), Donato Larretxea eta Iker Vicentek parte hartuko dute. Informazio + kirol orrietan.

Arkupeak

Otsailaren 28an Sun- billako Arkupeak Elkar- teko bazkideek beraien urteko besta eginen du- te Ariztigain kanpinea. Goizeko 10etan meza

izanen dute. 11etan Mus- txapelketa azkarra kan- pinean eta 14:00etan bazkaria.

Haurren mezak

Hilabetero azken igan-

dean haurren meza os- patzen da. Haur, otsai- laren 28an ospatuko da. Garizuma aldi- an gau- denez, ortzegun eta or- tziaratan 18:00etan me- za izanen da.

GIZARTEA

GIZARTEA → SAHARAKO ERREPUBLIKA ARABIAR DEMOKRATIKOA (RASD) SORTU ZELA BERROGEI URTE BETEKO DIRA OTSAILAREN 27AN

Saharaztan elkarteak sentsibilizazio jardunaldiak antolatu ditu egunotan

Hitzaldiak eskainiko dituzte Hassana Aliak Elizondon eta Naffak Donezteben

TTIPI-TTAPA

1976ko otsailaren 27an sortu zen RASD (Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoa). Data eta ekimen hauek

ospatzeko eta bidena- bar sahararrez oroita- razteko Saharaztan el- karateak urtero bezala sentsibilizazio jardun- aldiak burutuko ditu. Ze- hazki bi hitzaldi izanen dira, ortziarlean Elizon- don eta larunbatean Do- nezteben.

Otsailaren 26an, or- tziarala, Elizondoko Arizkunenea kulturet- xean 19:30ean, Hassana Alia ekintzaile saha- rarak, Marokon bizi oso- ko kartzela ezarri diote-

nak, hitzaldia emanen du. Gdeim Izik-eko kan- pamentuko protesta ba- ketsuan parte hartzea- gatik jaso zuen zigor ho- ri. Orain gure arten bizi da baina Marok bere estradizioa eskatu du. Hassanak Espainiako gobernuari babes poli- tiko eskatu dio eta era- bakiaren zain dago. Hi- tzaldian okupatutako Saharako egoerari bu- ruz solastuko du, ber- tako sahararrek sufri- tzen dituzten giza esku-

bideen urraketa eta eten- gabeko jazarpenari bu- ruz bertzeak bertze.

Otsailaren 27an, la- runbata, 18:30ean el- karretaratzea eginen du- te plazan eta 19:00etan zinema aretoan aspal- dian Donezteben bizi den Naffak, Polisarioko gudari ohiak, hitzaldia emanen du. Saharako Errefuxiatuen kanpa- menduko egoerari bu- ruz solastuko du.

Ondotik *Coria y el mar* filma ikus ahalko

da. Dokumental hone- tan kanpamenduetako saharar emakumeen eguneroko bizimodua ikus liteke.

Nina Navak zuzendu zuen eta gurera peliku- la aurkeztera eta horren gainean aritzera Aina- ra Pagola etorriko da, *Co- ria y el mar* dokumen- talaren zuzendaritzako laguntzaile eta ekoizlea.

Hau akitzean afal- tzeraz joanen dira Bela- rra ostatura. Bi ekimen hauek doan dira.

DONEZTEBE

GIZARTEA → KIROLA, ANTZERKIA ETA MUSIKA LOTUAZ

Emakumearen Eguneko egitarau zabala prestatu dute

Saray elkartearen aldeko zunba maratoia egingen dute kiroldegian

Marga ERDOZAIN

Nazioarteko Emakumearen Eguneko egitaraua ekimenez betea dator. Martxoaren 5ean, larunbatean, kiroldegian zunba maratoia burutuko da Saray, Bularreko Minbiziaren Elkarteari laguntza emateko. Martxoaren 8an, asteartean, Herriko Ostatuan bertako antzerki tailerraren eskutik baka-rrizketen emanaldia izanen da 19:00etan. Martxoaren 11rako, ortzirala, Herriko Ostatuan Mendi Abesbatzak emanaldi berezia prestatu du taldeko emakumei protagonismoa emanez eta hainbat sorpresa ere prestatu dituzte. Emanaldiaren ondotik afaria antolatuko dute, musikaz alaituta.

Xabierera joateko autobusa

Xabierera joateko autobusa antolatu du Errekak aurten ere. Autobusa martxoaren 12an, larunbatean, Beratik goizeko 04:45ean eta Doneztebetik 05.00etan abiatuko da. Iruñean geldituko da, handik Xabierera dau- den 42 kilometroko ibil- bidea oinez egiteko. Ondoren, etxera itzul- tzeke autobusa Xabie- rren egonen da. Titi



ARGAZKIAK: LEIRE AMOROS ETA FOTO ZALDUA

Karroza eta mozorro onena

Inauteriek argazki aunitz utzi arren, bi aukeratu ditugu: mozorro eta karrozarik hobere- nenak. Hilketatik atera nahian dagoen ban- piroa izan da mozorrorik onena eta Udalak emandako saria jaso du: jatetxe batean bi la- gunentzako otordua. Eta Zekings-bikingoek, berriz, Doneztebarrak Merkatari Elkartek emandako saria jaso dute: hagitz ikusgarria eta gustagarria den saskia. Sariez gain, inau- teriek zenbaki polit hauek utzi dizkigute: 50 gazte ortzeguneko afarian, 300 kalderero ort- ziraleko desfilean, 110 gazte ortziraleko es- kean eta bazkarian. Larunbateko desfilean 24 orga eta 30 koadrilatik goiti.



ostatuan apuntatu be- har da: bazkideek 18 euro ordainduko dute eta ez direnek 15 euro.

Ene Kantak emanaldia

Martxoko lehenda- biziko hamabortzaldiko agenda borobiltzeko Ene Kantak emanaldia izanen da martxoaren 13an, igandean, Do- neztebeko kiroldegian. Aipatu behar da 550 sar- rera salgai paratu zitue- la Udalak eta 5 egunez denak saldu zirela.

ASKIN

Doneztebeko Udal Haur Eskola 0-3 urte

AURREINSKRIPZIOA: MARTXOAK 1-16

Ate irekiak: 2016-03-05 · 10:00/12:00

948 451 868 - 683 158 606
Facebook: Askin Haur Eskola Doneztebe

FLASH

Mugikorrak biltzeko kanpaina

Mendaur Instititutuko 4. Mailako Diberreko ikasleek telefono mo- bil zaharrak biltzeko kanpaina abiatu dute. Telefonoak Alboa GKE- ra bidaliko dira, birzi- klatzeko eta etekinak Kongoko errefuxiatu- en kanpamentuetara bidaltzeko. Mobilak institutuko atean da- goen kutxan uzten ahal dira.

Kontsumitzaileen Bulegoa

Iratxe kontsumitzaile- en Elkarteak eskaini- tako zerbitzua martxo- aren 4an eta 18an ema- nen da. Debaldeko bi- tartekaritza eta lagun- tza juridiko honek bi ortziraletan eskatuta- ko kontsultak bidera- tzen lagunduko du. In- teresatuak aldez aurreretik ordua eskatu be- har dute: 948 451746 telefonora deituta.

Adimen emozionala

Adimen emozionala: Senideak norbere one- tik ateratzeko zorian izeneko ikastaroa es- kainiko dute martxo- aren 3an, ortzegunean 17:00etatik 19:00eta- ra Malerrekako Man- komunitatean, zain- tzaileei zuzendua. AFANeko psikologo batek emanen du ikas- taroa eta Alzheimerra duten pertsonekin egu- neroko elkarbizitzari aurre egiten ikastea, estresatzen gaituzten egoeren aurrean ber- tze ikuspegi bat gara- tzea, gure emozioak ulertzea eta onartzea, portaera trebetasunak ikastea eguneroko egoeren aurrean eta umore sena garatzea landuko dituzte.

GIZARTEA → URTARRIL HONDARREKO ETA OTSAIL HASIERAKO ASTEBURUETAN AUZOLANA

Bostorraterako pistan farolak jarri eta bidebazterrak garbitu dituzte

Leed motako argiak jarri direnez argindarraren fakturan ez da goerarik somatuko

Mattin LARRALDE

Urtarrilaren azken aste bukaeran auzolana izan zen. Herritarrek parreta bat altxatu zuten, farolak jarri eta argia sartu zuten eta bidebazterrak edo kunetak ere garbitu zituzten, Bostorratera doan pistan. Baina lan guztiak ez ziren aste bukaera horretan akitu eta otsaileko lehen asteburuan ere izan zen auzolan bolondresa. Hamazapi lagun bildu ziren bigarren



ARGAZKIA: MATTIN LARRALDE

Auzolanaren bitartez ederki txukuntzen ari dira herriko bazterrak.

honetan ere eta denen artean akitu zituzten egin beharreko lanak. Aski txukun utzi dutela erran daiteke.

Bidean hainbetez farola berri jartzearekin argindarraren faktura ere igoko ote den kezka azaldu du norbaitek,

edo zurrumurrua behin behin hor ibili da. Aipatzekoa da leed motako argia jarri dela, ez bakarrik bide horretan,

herrian ere aldatzen ari baitira. Eta lehen farola batek 250w zeuzkan eta oraingoak 40w dauzka. Aldaketarekin nabarmen ikusten da, beraz, argindarra jautsi egin dela eta hortaz, zergek ere bide bera segituko dute.

Zuhaitzaren Eguna igandean

Otsailaren 28an, igandean, Zuhaitzaren Eguna egingen da Bostorratz inguruan. Lehenbizi zuhaitz landaketa egingen da eta ondotik, gosari-bazkaria egingen da, inguru horretan dagoen bordan. Guraso Batzordeak eta Udalak antolatutako ekitaldi hau, haur, gazte eta parte hartu nahi duen edonorri idekia dago.

1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

edredoi fundak
albornoak
edredoi nordikoak
ohe estalkiak
maindireak
mantelak
kuxinak
toailak

Merkealdia

Tafalla, 13 • IRUÑEA
948 230 634

ARKUPEAK

GIZARTEA → OTSAILAREN 11N BILDU ZIREN

Hainbat gai landu ditu zuzendaritza batzordeak

Elkartaren webgunea berrituko du Elizondoko Baztanet informatika enpresak

Fernando ETXEBERRIA

Otsailaren 11n zuzendaritza batzordeko eta administrazioko kideek bilera egin zuten elkartearentzat garrantzitsuak diren hainbat gai lantzeko. Hasteko, aipatu behar da La Caixa Fundazioak 6.000 euroko diru-laguntza eman diola Arkupeak elkarteari, ikastaro, bidaiak... ordaintzeko laguntza gisa.

LEHENENEGO HIRUHILEKO IKASTAROAK

Ikastaroetan izen-emateko epea bukatu ondotik, lehendabiziko hiruhilekoan antolatuko diren ikastaroak ere zehaztu dituzte. Dantza, luzaketak, frantseza, lorezaintza, pintura, memoria tailerra, egur zizelketa eta pirograbatuaren hasierako ezagutzak, igeriketa, aquagym, informatika, argazki erretokea eta aurkezpen digitalak.

BIDAIA ETA IRTEERAK

Bigarren seihileko bida-

iak ere zehaztu dituzte. Irailean Baltikoko hiriburuak bisitatzeko aukera izanen da; urrian Benidormen Fenicia eta Poseidon hoteletan atseden hartzekoa eta azaroan Kanariar Uhartetan Playa del Ingles-en eguzkia hartzea.

Egun bateko irteeretan berriz, hainbat aldaketa izanen dira. Aurten Arantzazuko irteera egiten denean, Santutegiko Hotelean bertan geldituko dira bazkaltzen Azeitira joan beharrean. Lezora egiten den irteeran Oiartzungo Gurutze Berri jatetxera joanen dira Hondarribiara joan beharrean eta Nafar pirinotara egiten den irteeran inguruko eta Belaguako hainbat herri bisitatu eta gero Juan Pito Bentan bazkalduko dute. Lodosara ere urtero antolatzen dute irteera eta oraingoan, zuzenean Peron piper fabrika bisitatzera joan, Carcarko bodega ezagutu eta Azagrako Venecia ostatura joanen dira bazkaltzera; bertan dantzaldia eta bingo sorpresa izanen dira. Bazkideen eguna Gorrakideen ospatuko dute aurtengoan ere eta Zugamarragako feriara, abenduarean 13an egiten den irteera izanen da urteko azken ateraldia.



ARGAZKIAK: FERNANDO ETXEBERRIA

Otsaileko mendi irteera Bertizetik Aizkolegira eta buelta

26 mendizale ausart elkartu ziren otsailaren 16an Bertizko Jaurerrian, 22 kilometroko mendi ateraldia egiteko. Hotz handia egiten bazuen ere (2 gradu), zenbait euri, haize eta elur egunen ondotik, egunsenti garbia izan zuten mendizaleek txangoari ekiteko. Ordu eta erdian egin zuten Bertiztik Aizkolegirako bidea. Bere garai oparoa izan zuen Aizkolegiko etxea egoera negargarrian dago gaur egun, baina bertatik bista ederrak zituzten, inguruko mendi guztiak elurtuak ikusten baitziren. Hamaiketakoaren ondotik, berriz ere Bertizera itzuli ziren, bi orduko txangoan. Gero, Pierresenea jatetxean bapo bazkaldu zuten. Hurrengo ateraldia martxoaren 15ean egiten dute eta goizeko 8:30ean egin dute hitzordua Berako Zalain jatetxean. Autobusean Biriatura joan eta Ibardinen barna zeharkaldia egiten dute, berriz ere Berara ailegatzeko.

JUBILOTEKAREN EMAN-HAR PROIEKTUA

Geriatrian espezializatutako lantalde bat eskualdean lan egiteko gogoz dago dependentsia duten pertsonak zaintzeaz arduratzen diren familiei eta ezintasunen bat duten pertsonen lagunduz.

Bertzeak bertze eguneroko jardueretan laguntza eskaintzen dute: goizetan jeiki, garbitu, ariketak egin... eta arratsaldetan paseoak,

hitzaldiak, irteerak, bilera, jolasak... Noizbehinka, osasun etxe eta hospitaletara gaixoak eramatea.

Zerbitzu honen bitartez, adinekoen bizi kalitatea hobetu eta barkadaderik ez sentitzea lortu nahi da. Zugarramurdi eta Urdazubin funtzionatzen ari den proiektu bat da eta interesgarria litzateke bertze herri batzuetan ere martxan jartzea, batez ere herri txikietan.

WEB ORRI BERRIA

Orain arteko web orria zaharkituta gelditua zegoen eta berritzeko aurrekontua eskatu da hainbat informatika enpresetan. Elizondoko Baztanet enpresa izan da aukeratu. Web orria berritu eta diseinatzearen arduradun izanen du, garai berrietara egokitu, pertsonalizatu eta mugikorretarako egokitutako bertsioa egiten du.

BERTSOLARITZA → TXAPELKETA

Bigarren fasean sartu dira Bardoak

Leitzan, Igantzin eta Beran izanen dira saioak

TTIPI-TTAPA

Otsailaren 19an berriro jarri da martxan Bardoak, Nafarroako taldekako txapelketa eta martxoaren 5era bitarteko sei saio jokatu dira Barañain, Leitza, Iruñea, Igantzi, Etxarri-Ara-

natz eta Beran. Lehenengo fasetik sailkatutako sei taldeak binakako ligaxkatan elkartuta, joan-etorriko saioetan arituko dira eta horietatik hiru talde pasako dira martxoaren 19an Etxarri-Aranatzen jokatu den finalera.

ESKUALDEAN

Eskualdean, bigarren faseko hiru saio jokatu dira. Leitzako Ateka-berts (Ander Fuentes



UTZITAKO ARGAZKIAK

Leitzako Ateka-berts eta Lesakako Unibertsolariak aurrez aurre izanen dira.

Itturri, Joanes Illarregi, Xabat Illarregi eta Migel Mari Elozegi Luze) eta Lesakako Unibertsolariak (Josu Sanjurjo, Jose Juan Zubieta Etxabe, Jon Silveira eta Iban Garro) aurrez aurre izanen dira otsailaren 26an, ostiralean Leitzako Ateka-beltz gaztetxean eta itzulerako saioan, Igantzin, martxoaren 4an, 19:30ean Igantziko Biltokin.

Berako Larungo An-

tenak taldea (Julen Zelaieta, Patxi Castillo, Aitor Elexpuru eta Jokin Pinatxo), berriz, Etxarri-Aranazko Einnekin taldearekin ariko da. Joanekoa Etxarri-Aranazko gaztetxean egingen dute martxoaren 4an eta itzulerako martxoaren 5ean, larunbatean 21:00etan Katakua ostatuan egingen den bertso-merenduarekin.

Lau talde hauetaz gain, Barañain eta Berrio-

zako Hiru garabardo eta pintxo bat eta Iruñeko Obario Maldikoak izanen dute finalean sartzeko aukera.

Fase honetan saioen egitura mantenduko bada ere, bertsolariak ariketa berriak egin beharko dituzte, talde lan handituz.

Txapelketaren gaineko informazio osoa eta eguneratua www.bertsozale.eus atarian aurkituko duzue.

Bardoak 2016

nafarroako taldekako bertso ekimena



OTSAILAK 26, OSTIRALA

Leitzako Ateka-beltz gaztetxean
Bertso-saioa

| ATEKABERTS (Leitza) | UNIBERTSOLARIAK (Lesaka) |
|---------------------------|-----------------------------|
| Ander Fuentes "Itturri" | Josu Sanjurjo |
| Joanes Illarregi | Jose Juan Zubieta "Etxabe" |
| Xabat Illarregi | Jon Silveira |
| Migel Mari Elozegi "Luze" | Iban Garro |

MARTXOAK 4, OSTIRALA

Igantzi Biltoki elkarte
19:30ean, bertso-saioa

| UNIBERTSOLARIAK (Lesaka) | ATEKABERTS (Leitza) |
|-----------------------------|---------------------------|
| Josu Sanjurjo | Ander Fuentes "Itturri" |
| Jose Juan Zubieta "Etxabe" | Joanes Illarregi |
| Jon Silveira | Xabat Illarregi |
| Iban Garro | Migel Mari Elozegi "Luze" |

MARTXOAK 5, LARUNBATA

Berako Katakua ostatuan
21:00etan, bertso-merendua

| LARUNGO ANTENAK (Bera) | EINNEKIN (Etxarri-Aranatz) |
|---------------------------|-------------------------------|
| Julen Zelaieta | Eneko Lazkoz |
| Patxi Castillo | Saats Karasatorre |
| Aitor Elexpuru | Joseba Beltza |
| Jokin Pinatxo | Unai Artieda |

antolatzailea

laurunkaria



informazio osoa eta sarrerak

WWW.BERTSOZALE.EUS

ITUREN

GIZARTEA → OTSAILAREN 11 ETA 12AN

Pulunpa eskola bisitatu du Xorroxin Irratiak

Arkaitz MINDEGIA

Pulunpa eskolako ikasleek Xorroxin irrati-kideen bisita jaso zuten otsailaren 11 eta 12an. 3 urtetik 12 urtera arteko ikasleak jarri ziren mikro aurrean eta baita irakasleak ere. Bi egunez, gisa guzietako kontakizun eta xeberkeriak uhineratu zituzten: lehiaketa, abestiak, berriak, horosko-poa...

Herritarrei ere parte hartzeko gonbidapena luzatu zitzaizen eta trukean animatu zirenen artean bi sari zozketatu zituzten. Zorionak egin zenuten lanagatik.

Errigoraren kanpaina

Eguberrietako Errigora ekimenak herrian izan zuen arrakastaren ondotik, Errigora olioaren kanpaina jarri dute martxan. Euskara ofiziala ez den zonaldean, euskara sustatzea eta bertako produktuak kontsumitzea bultzatu



UTZITAKO ARGAZKIAK

Eskolako neska-mutikoak gustura aritu ziren Xorroxin Irratian.

ren kanpaina jarri dute martxan. Euskara ofiziala ez den zonaldean, euskara sustatzea eta bertako produktuak kontsumitzea bultzatu

nahi da. Olio kanpaina honetan lau errotak parte hartzen dute. Olio bost litroko bidoietan salduko da. Eskaria egiteko azken eguna

martxoaren 2a izanen da.

Interesa dutenek eguberrietako kanpainaren arduradunarekin hitz egin behar dute.

URROZ

OSPAKIZUNAK → OTSAILAREN 5ETIK 7RA

Umore eta giro onean joan dira inauteriak

Joseba URROTZ

Otsailaren 5tik 7ra ospatu ziren inauteriak. Ortziral arratsaldean, haurrak ibili ziren etxe-etxe mozorroturik opariak biltzen. Arratsean, berriz, ia 40 lagun elkar-tu ziren ostatuan afaltzeko, giro goxoa sortuz. Larunbat goizean, traktorea bere gurdia-kin hartu eta baserriz-baserri ibili ziren eskean eta parranda ia gauerdira arte luzatu zuten. Hala ere, afaltzeko ber-tze talde bat ere anto-latu zen.

Igandean talde ttipi bat ere izan zen bazkal-tzen.

'El guardián invisible' Leurtzan

Azken urte hauetan ezagunak egin dira Dolores Redondo eta Baztanen girotutako bere eleberririk. *El Guardián Invisible* izena duen lehenbiziko liburuan oinarritutako pelikula egiten hasiko dira ixtante-ko, eta haren zati bat bederen, Leurtzako urte-gien inguruan grabatuko dute. Prestatzen



ARGAZKIAK: JOSEBA URROTZ

Gazteek eta haurrek, ezin hobe pasatu zuten inauterietan.

hasteko otsailaren 16an bertan izan ziren ekoiz-leak eta Fernando Gon-

zalez Molina zuzenda-ria udaletako ordezkari-ekin batera. Aste San-

tuen ondotik etorriko omen dira egun batez lan hori egitera.

GIZARTEA → OTSAILAREN 2AN

Errota bisitatu dute Iruñeko agintariek inauterietan

Funtzionatzeko modua azaldu zien Alix Gereka errotazainak

Fermin ETXEKOLONEA

Bisitari aunitz izaten dira herrian inauterien aitzakian. Aurten, Nafarroako Gobernuko ordezkariak ere, joaldunen harat-honatak ikusi bidenabarkoan, errota bisitatu zuten, Udalak gonbidatuta.

Fernando Pérez Gómez, Vianako Printzea Erakundea-Kulturako Zuzendari nagusia; Su-

sana Irigaray Soto, Museoko zerbitzuetakoa eta Adoración López, Kultur Ekintza Zerbitzuak, Alix Gereka errotazainaren azalpenak aditu zituzten.

Aizkora apustua

Martxoaren 20an, igandea, Mieltxo Mindedia zubietarraren eta Eneko Otañoren (Beizama, Gipuzkoa) arteko aizkora apustua jokatuko da Doneztebe-ko Ezkurra pilotalekuan, eguerdiko 12:00etan hasita.

Aizkolari bakoitzak hamabi kanaerdiko eta



UTZITAKO ARGAZKIAK

Nafarroako Gobernuko ordezkariak errotazainaren ahotik aditu zituzten azalpenak.

lau 60 ontzako moztu beharko ditu. Desafioaren antolatzaileak bi aizkolariak dira. Nafarroako Herri Kirol Federazioak proba kontrolatuko du. Akitzerakoan aizkolariak dopinaren aurkako proba pasa beharko dute.

Joareekin Doneztebera

Herriko neska koardila bat, joareak jantzi eta Doneztebe-ko inauterietara joan zen.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Herriko inauterietako seinalea Doneztebera ere iritsi zen.

TALLERES SANTESTEBAN, Ongi etorri!
Baztan - Bidasoako Renault Zerbitzu ofizial
bakarra gara orain. Zure kotxeak behar duen guztirako, etorri gurera.

RENAULT
Passion for life

RENAULT ocasión alquiler de vehículos comerciales

SERVICIO POSVENTA Renault
Renaultek gomendatzen du **elf**

renault.es/posventa

TALLERES SANTESTEBAN, S.A. Leitzako Errepidea, 80. Tel. 948 450 282. 31740 DONEZTEBE

ESKUALDEA

MEKNA | Mezenasgoa Kultura Nafarroa

Ttipi-Ttaparen laguntzaileei martxo hasieran pasako zaizkie erreziboak

TTIPI-TTAPA |

Ttipi-Ttapa aldizkariari Mekna bidez edo Ttipi Txartela eginda laguntza ematen dieten pertsonai, datozen asteetan pasako zaizkie 2016ko erreziboak. Kontrako abisurik eman ezean, martxoan bidaliko ditugu banketxeetara erreziboak. Horregatik, **kontu zenbakia edo bertzelako daturen bat aldatu** nahiko luketenei estimatuko genieke lehenbailehen abisatzea, 948635458 telefonora deituta bulego orduetan (08:00-16:00).

Aldizkari honekin batera banatuko da **2015eko donazioaren ziurtagiria** ere. Aitorpena egina bidaltzen ez dietenek badaezpada ere ongi gorde beharko dute agiria. Errenta Aitorpena egina bidaltzen dietenek berri, apuntatua ikusiko dute egindako donazioa.



Edozein momentutan egin liteke Ttipi-Ttapa Mekna bidez laguntzeko eskaria.

Bertzalde, aipatu behar da, oraindik ere edozein momentutan egin litekeela TTIPI-TTAPA **MEKNA bidez laguntzeko** eskaria. Iaz deklaratu zuten MEKNA ziur-

tagiriaren bitartez Interes Sozialeko TTIPI-TTAPA eta, horri esker, partikularrek egindako donazioek %80ko kenkaria dute Errenta Aitorpenean (lehen 150 euroetan).

Konparazio batera, TTIPI-TTAParentzat 50 euroko laguntza eman duenak 40 euro hartuko ditu bueltan. Nafarroako enpresek ere badute onura sozietate-

ONURA FISKALA

Partikularrentzat, egindako donazioaren %80 itzuliko zaio errenta-aitorpenean (lehen 150 euroetan), eta %40 kopuru handiagoako donazioetan.

MEKNA
MEZENASGOA KULTURA NAFARROA

en gaineko zergaren oinarrian: %30eko kenkaria lehen 300 euroetan eta %20 hortik gora.

Informazio gehiago:

www.mecna.navarra.es webgunean aurki daiteke gai honen inguruko informazio zehatza, berdin TTIPI-TTAPara deituz **948635458** telefonon edota nahiago bada **bagoaz@ttipi.eus** posta elektronikora idatzita.

HEDABIDEAK → ANDROID ETA IOS SISTEMA ERAGILEA DARABILTEN GAILUETARAKO

Mugikor eta tabletetarako **ERRAN.eus**-en aplikazioa eskuragarri

TTIPI-TTAPA

Erran.eus atariaren aplikazioa eskuragarri dago Android eta iOS (Apple) sistema eragileak erabiltzen dituzten mugikorretan eta tabletetan. Bertzeak bertze, tokian tokiko albisteak modu erraz eta arinean, dohainik, erakusten dituen tresna da aplikazioa. Lehenbiziko bertsioa da orain eskuragarri dagoena eta pixkanaka baliabide berriei hornitzen joanen da. Momentuz albisteak, agen-

da, komunitatea, eguraldia, merkatu ttipia, urtebetetzeak, bideoak eta argazki galeriak kontsulta litezke eta hemen hurrengo urratsa, Xorroxin Irratia zuzenean entzuteko aukera eskaintzea izanen da.

Aplikazioa deskargatzen duten erabiltzaileek, gainera, unean uneko eta tokian tokiko gertaeren berri edukitzea jakinarazpenak ere momentuan bertan jaso ahalko dituzte tresna berriari esker.

Horrez gain, geolokalizazio bidezko agenda kulturala ere eskaintzen du. Bilaketak errazteko, erabiltzaileek zein herriri buruzko informazioa jaso nahi duten aukeratu dezakete.



GIZARTEA → OTSAILAREN 9AN

2016ko aurrekontuak onartu ditu Udalak

2.405.031 euroko aurrekontua izanen du

JM BARRIOLA

Otsailaren 9an egin dako batzarrean aurrea atera zituzten 2016ko aurrekontuak EHBilduko zinegotzien aldeko botoekin eta UPNko zinegotzien abstentzioarekin. Udalak aurten, 2.405.031 euroko aurrekontua izanen du eta hori kontuan hartuta Udalaren urteko norabidea finkatuko da.

Sarreraren %60a (1.444.390 euro) udalak zuzenean biltzen dituzten zergen, tasen, kanoenen, alokairuen... bidez

lortuko da eta gainerako %40a (960.641 euro) dirulaguntza eta fondoen bidez osatuko da. Aurrekusten diren gastuak hauek dira: %64 gastu arruntak (argia, gasa, soldatak...), %19a transferentzia arruntak, %8a inbertsioak, %8a amortizazioak eta %1a maileguren interesak.

2016rako finkatutako egitasmo eta helburu nagusienak ere zehaztu dituzte: kirol azpi-egituraren kudeaketa pribatua publiko bihurtzea, 2016 urteko azpiegiturretan inbertsioak, Gizarte politikak indartzea, Euskararen aldeko mankomunitateei oportazioa igotzea, kultura, kirola eta aisialdia sustatzeko baliabide



ARGAZKIAK: JULIAN ZABALETA

Jende asko bildu zen Santa Ageda bezperako kalejiran

Santa Ageda bezpera zela eta, urteroko moduan kalejira antolatu zuen ALKE kultur taldeak. Gaztetxoak etxez etxe ibili ziren eguerdira arte eta arratsaldean baserriz baserriz eskean kantari. Plazan bildu zirenek, kalejira ederra egin zuten herrian barrena ahotsak findu eta koplak kantari, bertsolari eta trikitilarien laguntzarekin. Ondoren denek karrapean pintxo dastaketa egin zuten elkarrekin.

gehiago jartzea, udala herritarrengana hurbiltzeko ahalegina egitea, genero berdintasunean sakontzea eta ingurugiroa eta bertako ohiturak errespetatuko dituen kalitazteko turismo jasangarria bultzatzen ahalegintzea.

FLASH

Inaxio Perurenak saiakera

305 kiloko harriarekin saiakera egingen du otsailaren 27an. Amazabalaren 12:30ean. Saio ofiziala da eta sarrrera dohainik da.

Lilatoirako prestaketak

Astearte eta ostegunetan 19:00etan Landa poligonoaren hasieran biltzeko deia egin diete taldean entrenatu nahi dutenei.

OTSAILAREN 28AN IRTEERA MASKARADA IKUSTERA

Aurrera dantza taldeak eta Korrontzik emanaldia eskainiko dute kiroldegian martxoaren 19an

JM BARRIOLA

Herriko dantzariak, Korrontzi folk musika taldearekin batera ikuskizuna landu dute eta martxoaren 19an kiroldegian aurkeztuko dute. Iluntzeko 8etan hasiko da saioa eta sarre-ra 10 euro ordaindu beharko da.

Horren aurretik, otsailaren 28an irteera bat ere antolatu du Aurrera dantza taldeak. Arrokiagara joanen dira Zuberoako maskarada bat ikustera. Interesa duen edonor joan liteke, horretarako dantza taldearen zuzendaritzari izena aurretik ematea nahiko da. 12 euro ordaindu beharko dituzte helduek eta 14 urtez azpi-



koek berriz 6 euro. Autobusa goizeko 8etan aterako da. Irteera hau Ortzadar taldearekin batera antolatu dute.

WWW.LEITZA.EUS

Web orri berria martxan jarri du Udalak

JM BARRIOLA

Leitzako Udalak garrantzia berezia eman nahi dio informazio, komunikazio eta gardentasun arloei. Hori dela eta, web orrialde berri bat jarri du martxan, www.leitza.eus helbidea izanen duena. Helburu nagusia herritarrek udal jardueraren inguruko informazioa modu azkar eta gardenean jasotzea da. Horregatik, ohiko informazio eta dokumentazioaz gain, albisteekin eguneratzen joanen dira. Horrekin batera, herriko agenda aberatsa ere kontsultatu ahaliko da.



ARESO

HIRIGINTZA → BIDE JURIDIKO LUZEAREN ONDOTIK

Udalak irabazi du herriko zoladura jarri zuen enpresaren aurkako auzia


74.795,63 euro ordaindu beharko dizkio kalte-ordainetan udalari

Juana Mari SAIZAR

la hamar urte pasa dira herriko kaleak konpontzeko lanak bukatu zirenetik, adokina jarri eta itxuraz polita gelditu zen. Arazoak baina, urte gutxiren buruan hasi ziren nonbait obra ez zegoelako ongi egina. Errepidean han hemena zuloak agertu ziren, zola mugitu eta hondo-

ratu egiten zen hainbat puntutan, zola zartatu egiten zen...

Estudios Arquinavarrira izan zen obra egitearen ardura izan zuen enpresa eta arazoak zeudela ikusirik udalak egoeraren berri eman zion. Denbora pasa eta enpresak konponbiderik ematen ez zuela ikusita epaitegiatarako bidea hartu zuen auziak. Lehenbiziko epaia Udalaren aldekoa izan zen baina enpresak errekurtsioa aurkeztu zuen. Horren ondorioz, kontua bost urte inguru luzatuta, nahi baino gehiago,



ARGAZKIA: JUANA MARI SAIZAR

Zuloak, desorekak... segituan hasi ziren arazoak.

eta denbora tarte horretan herritarrek haserre, udaletxera jo dute behin baino gehiagotan euren kezak azaltzera.

Duela egun batzuk jakin dugu berri ona. Udalak epaiketa irabazi du eta enpresak kalte-ordainetan 74.795,63 euro ordaindu beharko dizkio. Epaia argitaratu eta hamabost eguneko epea zuen enpresak ordainketa egiteko.

Dirua jasotzen duenean, obren lizitazioa egiteko prozedura prestatuko du Udalak eta konponketa lanak hasiteko bidea irekiko du. Proposamena aurkezten duten enpresen artean erabakiko du Udalak eta legeak ezartzen dituen epeen baitan, ahalik eta azkarren hasiko dira herriko zoladura konpontzeko lanak egiten.

ARANO

GIZARTEA

Nafarroako Kutxak ez du herrigintza eskolarako laguntzik eman

Ainhoa ANSA

Herrigintza eskola iaz jarri zen martxan eta horren baitan saio desberdinak antolatu ziren. Herritarren laguntzari eta parte hartzeari esker egin zuen batez ere aurrera ekimenak baina Nafarroako Kutxa fundazioak emandako diru laguntza ere garrantzitsua izan zen oso. Aurten, ordea, ilusio handienarekin hasitako proiektu txikiak ez du Kutxa Fundazioaren aldetik laguntzarik jasoko. Iaz adibidez, Fundazioak emandako laguntza baliatuz, megalitoen ibilbidea eta historia-urrea jendearengana hurbiltzeko ekimenak egin ahal izan ziren. Aurten, laguntza hori ere ukatu egin zaio Udalari. Baina ilusioak hor dirau behinik behin... eskola ezberdinak antolatzen, hauetaz goxatzen eta herria elkarrekin eza gutzen segituko dugu.

HERRIGINTZA TAILERRA MARTXOAREN 12AN

Hala, hurrengo hitzordua dagoeneko adostu dute. Martxoaren 12an 10:00etan eskulan tailer bat antolatu da herriko umeei zuzendua. Tailer horretan soinuaren ibilbide bat egingo dute guztien artean. Beraiekin erabakiko dute gero nondik norako ibilbidean zehar jarriko dituzten zintziliek egingo dituzten tramankulu horiek.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Otsailaren 15ean elurrak bazterrak zuritu zituen

Ez zen ikaragarritzko elurtea izan baina irudi politak eta goizean nahikoa arazo sortu zituen behintzat!

GIZARTEA → OTSAILAREN 12AN

Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko lokal berria inauguratu dute herrian

Hemendik aurrera astearte eta asteazkenetan eskainiko dute zerbitzua Santa Maria kaleko 26an

TTIPI-TTAPA

Otsailaren 12an inauguratu da Arano, Areso, Goizueta eta Leitzako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearen Goizuetako egoitza berria. Inaugurazioari Unai Loiarde herriko alkateak eta Josune Marzol Leitzako zinegotzi eta Gizarte Zerbitzuko lehendakariak eman zien hasiera eskolako jangelan. 40 bat lagun elkartu zituen ekitaldian, Jubilatuen Elkartearen, Guraso Elkartearen eta beste hainbat herritarren artean, Ainhoa An-



ARGAZKIA: FELIX LOIARTE

Mankomunitateko eta Leitza, Goizueta eta Aresoko alkate eta zinegotziak ekitaldian.

sa Aranoko alkatea, Leitzako Mikel Zabaleta alkatea eta Eneko Andueza eta Markel Azkargorta zinegotziak, eta Goizuetako Pili Apezetxea, Mari Jose Aizpuru, Zuriñe Lujanbio eta Itsaso Lujanbio zinegotziak.

Gizarte Zerbitzuko Birginia Eraso, Junkal Otxotorena, Maite Pe-

rurena eta Birginia Landiribar langileek Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak eskaintzen duen zerbitzuaren inguruko informazioa eman zuten. Hemendik aurrera, Arano eta Goizuetako herritarren zerbitzura Santa Maria kaleko 26 zenbakiko behean egongo direla ere

adierazi zuten.

Ondoren, lokal berria hurbildu eta barrutik nola gelditu den ikusteko aukera izan zuten gerturatutakoek. Egoitza, behar bereziak dituztenentzat irisgarriagoa da eta honek, zerbitzuaren kalitatea hobetzeaz gain, guztion eskurago egotea ekar-

tzen du: «Gure konpromisoa kalitatezko gizarte zerbitzuen aldeko apustua egitea da» aipatu zuten.

Elama Eraikuntzak SL enpresa abenduan hasi zen obrak egiten eta bi hilabete iraun dute lanek. Azkenean, 32.000 euro inguruko kostua izan du eta Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearen eta La Caixaren diru laguntzaren bidez ordainduko da. Udala izan da promotore, baina Gizarte Zerbitzuarekin hitzarmena sinatu duenez, lokalaren erabilera bere esku geldituko da. Beraz, hemendik aurrera, astearte eta asteazkenetan, bertan egongo da zerbitzua. Hala ere, gogoratu, aurrez hitzordua eskatu behar dela: telefonoz, 948 510 840; posta elektronikoz, ssbleitza@infolocal.org; eta facebook-en LAGA gizarte zerbitzua.



ARGAZKIA: FELIX LOIARTE

Santa Agedari kantari ibili dira aurten ere

Santa Ageda bezpera kantuz bete dute eta hotzari aurre eginez, 30 bat lagun atera dira santa eskean. Kalez kale giro bikaina jarri dute eta Zahar Etxeko bizilagunei ere kuku egin diete.



ARGAZKIAK: FELIX LOIARTE

Giro ederrean joan dira aurtengo inauteriak

Gaztetxoaren zahagi-dantza, mozorroen irteera, herria rockaren hiri-buru bihurtua, zahagi-dantza, hainbat disfraz eta karroza ikusgarri... aurtengoan ere eman dute inauteriek berea.

BAZTAN

GIZARTEA → OTSAILAREN 29TIK MARTXOAREN 20RA

Emakumearen Egunaren harira hainbat ekintza prest dituzte

Afganistani buruzko argazki erakusketa, solasaldia eta bertso musikatuak izanen dira egunotan

TTIPI-TTAPA

Martxoaren 8ko Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira zenbait ekitaldi eginen dira otsailaren 29tik martxoaren 20ra Baztanen ere, Udaleko Berdintasun Batzordeak antolatuta.

Baztango Udalak, Nafarroako 17 Udalerri eta Mankomunitatek parte hartzen duten kanpaina bateratuarekin bat egingo du aurtengo kanpainarako erabiliko den lema honakoa izango da: *Feminismoa ez da matxismoaren kontrako, ezberdintasunaren antidoto onena baizik. Orain inoiz baino beharrezkoagoa!*

Otsailaren 29tik martxoaren 10a arte Emakumeak. *Afganistan* argazki erakusketa eginen dute Arizkunenean. Gervasio Sánchez eta Mónica Bernabéren argazkiak astelehenetik ortziratera 17:00etatik 20:00etara egonen dira ikusgai.

Martxoaren 2an, asteazken arratsaldeko 7:30ean, *Berdintasuna kirolean: lorpenak eta erronkak* solasaldia es-



ARGAZKIA: ALVARO GARCIA

Poema liburu berria aurkeztu du Hasier Larretxea arraiotzarrak

De un nuevo paisaje. Horixe da Hasier Larretxea Gortari idazle arraiotzarrak idatzi duen azken poema-liburuaren izenburua. Mugak, identitatea, harremanak... gai horien inguruko hausnarketa egiten du liburuan eta horretarako hizkuntza paisaia berri bat sortzen du, lurra eta natura begiratzen duena. Liburua otsailaren 13an, larunbat eguerdian aurkeztu zuen Iruñeko Walden liburutegian, Uxue Juárez olerkari eta lagunarekin batera. Elisabet Parés eta Alvaro Garcia editoreak ere bertan izan ziren, baita Hasier Larretxearen gurasoak eta hainbat literatur eta olerki zale ere. 1982an Arraiozen jaioa, hainbat urte darmaizki Madrilen bizitzen Hasier Larretxeak.

kainiko du Ainhua Azurmendik Elizondoko Arizkunenean.

Martxoaren 6an, igande arratsaldeko 7etan *Ez da kasualitatea* bertso-saio musikatua eskainiko dute Arizkunenean Alaia Martin, Oihana Iguaran, Ane Labaka eta Amaia Agirre bertsolariak, bi musikari lagun dituztela. Ainhua Aranburu izanen da aurkezlea.

Martxoaren 16an, asteazken goizeko 11etan *Futbolariak eta printzesak* antzezlan eskainiko du Eidabetaldeak Irurritako Damaso Zabalza Gizarte Bilgunean. Baztan Ikastola, Elizondoko eskola eta

herrietako eskola ttikietakoa Lehen Hezkuntzako 4. eta 5. mailako ikasleek parte hartuko dute.

Martxoaren 17an Lekarozko Batxilergoko 2. Mailako 62 ikaslek, Elhuyar Fundazioak sortutako *Bizentaren lumak* solas-jolas ekimenean parte hartuko dute. Jolasen bidez eta euskaraz, gazteen artean berdintasunaren aldeko jarrerak sustatzea da ekimen honen helburu nagusia.

Martxoaren 20an, igande arratsaldeko 7etan Kamikaz kolektiboaren *Euli Giro* helduendako antzerkia ikusgai izanen da Iruri-

tako Damaso Zabalza Gizarte Bilgunean.

HEZKIDETZA TAILERRAK

Urtero bezala, azaroaren 25ean hasitako lanarekin segituz, Lekarozko institutuan eta Elizondoko Lanbide Eskolan Hezkidetza tailerrak izanen dira (martxoaren 3, 10 eta 17an Lekarozen eta martxoaren 14an Elizondon). Lanbide Eskolako 28 ikaslek eta Lekarozko 79 ikaslek parte hartu zuten azkeneko tailerretan eta oraingoan gaia gehiago lantzeko aukera izanen dute. Hezkidetza tailer hauek Emagin elkarteak formaziozko tailerretan parte hartu zuten ikasleekin batera antolatuta izanen dira. Tailerretan parte hartu zuten ikasleekin batera antolatuta izanen dira. Tailerretan parte hartu zuten ikasleekin batera antolatuta izanen dira.

FLASH

Haziaren Eguna Erratzun

Haziaren Eguna bi saiotan eginen dute aurtengoan. Lehenbizikoa Erratzun izanen da, otsailaren 27an, Erratzuko Kultur Elkartearekin batera antolatuko du Hazitik Hozie elkarteak eguna eta Erratzuko Herria, Etxeleberteko Txokoa elkartearen eta Baztango Kultur Batzordearen laguntza izanen du. Hazien trukaketa eginen dute Etxeleberteko Txokoa larunbatean 10:30ean eta 11:30ean hitzaldia Jakoba Errekondorekin.

Bertso afaria Erratzun

Eguna borobiltzeko, larunbat honetan bertso afaria antolatu du Erratzuko Kultur Taldeak Baztango Bertso Eskolaren laguntzaz Etxeleberteko Txokoa, 21:00etan. Andoni Egaña, Julio Soto eta Iker Zubeldia ariko dira kantari eta Fernando Anbustegi izanen da aurkezlea.

Helduendako antzerkia Iruritan

Tartean Teatrok *Zergatik Jamil?* helduendako antzezlan eskainiko du otsailaren 28an, igandean 19:00etan Irurritako Damaso Zabalza Gizarte Bilgunean. Sarrera doan lekuak bete arte.

Baztango Haur Kantarien V. Topaketa

Elizondoko Abesbatza Ttikiak antolatuta Baztango Haur Kantarien bosgarren topaketa eginen dute martxoaren 5ean, 18:30ean Irurritako elizan.

GIZARTEA → OTSAILAREN 3KO BILERA

41.391 euroko irabaziak izan zituen iaz Giltxaurdi kiroldegiak

Hala jakinarazi zuten administrazio kontseiluaren bileran

TTIPI-TTAPA

Baztango Udaleko Giltxaurdi Kiroldegiak administrazio kontseilua otsailaren 3an bildu zen. 2015 urteko kontuak onartu zituen 41.391,81 euroko irabaziekin. Hornikuntza gastuetan aurrezteak eta udako eguraldi ederak lagundu dute emaitza horretan.

Irabazi eta galeren kontuen dokumentuetan oinarrituta kontuak nola joan ziren azaldu zuten gerenteak. Gastuei dagokionez, datu aipagarriena, hornikun-

tzetan aurreztu den diru kantitatea da, hornikuntza merkeago bat erabiltzen delako 2014 urtetik aurrera.

Diru sarrerei dagokionez, udako eguraldi ederrak diru sarrera gehiago lortzea ekarri zuela aipatu zuten. Bertze aldetik, ezin dugu ahaztu, enpresa pribatuek lortzen zuten etekin industrialak Baztango Udalarik gastu bat suposatzen ziola eta gaur egun, enpresa publikoko etekinak, instalazio-egoera hobetzeko erabiltzen direla edo inbertsionarako.

Bilkura honetan ere, aho batez 2016 urteko aurrekontuak onartu ziren. Orokorrean partida guztiak aurreko urteko gastuen kantitate berdinarekin mantentzen dira, salbuespen batzuk



UTZITAKO ARGAZKIA

Fruta-arbolak inauteko ikastaroa egin dute Xabier Akizurekin

Bigarren urtez, segidan, udalak antolaturiko fruta-arbolak inauteko ikastaroa egin da. Xabier Akizu nekazari ekologikoa irakasle izanik Arizkungo Gamioxa-reko sagardian hamasei lagun elkartu ziren otsailaren 14an. Eguraldi motela izanagatik harat hurbildutakoek aitzineko urtean ikasitakoari segida eman ahal izan zioten eta han solastatukoaren haritik, ilargiaren ondorioei buruz eta txertoiei buruz bertze ikastaroren bat egiteko beharra ikusi zuten. Xabier Akizu 1979tik Ezkio-Itsasoko Hariztizabal baserrian nekazaritza ekologikoan ari da, bertzeren artean, frutazaintzan. Denbora guzti honetan ikasitakoak elkarbanatzeko han-hemen hamaika ikastaro eman ditu. Frutazaintzak Baztanen garrantzi handia izan du, nahiz azkeneko hamarraldietan gainbehera etorri. Garai batean sagarrak, udareak, gereziak, gaztainak, giltxaurrak, hurrak, pikuak, mizpirak... landatu, txertatu, zaindu eta biltzen ziren. Eta, orain ere, tokiko ekonomia bizkortzeko aukera zaharberria izan daiteke.

kenduta. 2016ko Erosketa bereziak partida handitu egin da, instalazioan hobekuntzak egiteko helburuarekin eta efizientzia energetikoko partida bat gehitu da ingurugiroan inpaktua gutxitzeko.

IAZ EGINDAKO EKITALDIAK LAGUNTZEKO

Kultur erakundeentzat 22.825,93 euroko dirulaguntza

TTIPI-TTAPA

2015eko jarduerari dagozkion dirulaguntzak eman dizkie Balleko Etxeak herriko kultur erakundeei, benetan egin dutenaren eta justifikatutako gastuen arabera. Denetara 22.825,93 euro banatuko ditu.

Elizondoko Abesbatzak 2.524,28 euro jasoko ditu, Lore emakumeen elkarteak 539 euro, Baztandarren Biltzarra elkarteak 6.000 euro, Baztango Bertso Eskola elkarteak 1.360 eu-

ro, Irurritako Dantzariak elkarteak 1.786 euro, Legate elkarteak 231 euro, Baztango Dantzariak elkarteak 3.958 euro, Itxusi Elkarteak 340 euro, Elizondoko Recreo bandak 196 euro, Hamaborts ama bat-ek 556,92 euro, Jo ala Jo Kultur Taldeak 2.059,73 euro, Irurritako Guraso Elkarteak 874 euro, Elizondoko eskolako Guraso Elkarteak 1.102 euro, Baztan Ikastolako Guraso Elkarteak 738 euro eta Erratzuko Ertzuin Guraso Elkarteak 561 euro.

Pierresenea
OSTATU · JATETXEA
Jaki tipikoak · Etxeko giroa
Iturriotz auzoa · Tfnoa: 948 592 043
ORNOZ - MUGAIRI

Nahia
centro de psicoterapia zentrua
• Dolua
• Antsietatea
• Autoestimazio eza
• Familia edota bikote arazoak
• Hitzaldiak eta tailerrak
Erlategi plaza. 8 behea | Elizondo
626 021 643
nahiapsiko@gmail.com

BAZTAN

GIZARTEA → HAINBAT AGIRI BEREZI ETA INTERESGARRIREN GORDAILUA DA

Elizondoko karrika izenen plakak aldatzen hasi da Udala

Lanak 2.196 euroko aurrekontua du eta Rotugrafik enpresa ari da

TTIPI-TTAPA

«Elizondok izan duen hiri-garapena eta karriken antolaketak hainbat disfuntzio sortu dituela» adierazi du Udalak eta hala, karrika izenen plakak aldatzen hasi da. Ohar bidez jakinarazi duenez, «karrikak izendatzerakoan eta etxeei zenbakia paratzerakoan egoera nahasgarriak gertatu izan dira». Eguneroko postaren banaketan ez ezik, notifikazioetan ere arazoak izan direla adierazi du Udalak eta larrialdi zerbitzuek ere gora-



Errotulo berria, Jaime Urrutia karrikan.

UTZITAKO ARGAZKIA

beherak izan dituztela. Hala, «hori guztia kontuan harturik, Udalak azkeneko hilabeteetan karriken antolaketa hobetzeko lana egin du».

Karrika izenen plaken aldaketa Udaleko euskara ordenantza batez egiten ari dira. Aitzineko agintaldian osoko bilkuran onartu zuten eta Elizondoko herriko batzarrak ere onztat eman zuen.

Karrika izenen plakak aldatu ondotik, herritarrei etxeetako zenbaki berrien itsasgarriak igorriko zaizkie. Eta segidan, Correosen laguntzarekin herritarrei helbideak aldatu behar dituztela oroitarazteko kanpaina abiatuko da.

Lan honek 2.196 euroko aurrekontua du eta Rotugrafik enpresa egiten ari da.

ERRUGBI ELKARTEA

Bazkide kanpainari ekin dio BRT taldeak

TTIPI-TTAPA

BRT Menditarrak taldeak bazkideak bereganatzeko lanarekin segitzen du. Bazkide txartela eguneratzeko ordua iritsi da. Bazkide txartela 2016 urterako baliagarria izanen da eta hiru bazkide mota daude (babeslea, laguna eta txiki) bakoitza bere prezio eta onurekin.

Honela, bazkide txikiak 5 euro ordaindu beharko dute eta opari sorpresa jasoko dute. Bazkide Lagunak 15 euroko urteko saria ordaindu beharko du. Horren truke, partiden ondorengo hiru garren denboretan BRTetxe elkartearen pintxo, garagardo, edo tragoxka musutruk hartzeko aukera izanen dute, zelaiko tabernan tragoxkak merkeago, BRT taldeak saltzen duen materiallean eta taldeak antolatutako bidaia eta ekintzetan deskontuak, taldeari buruzko informazio zehatza eta eguneratua whatshap edo emailaz hartzeko aukera eta urteroko Ultzamako festarako sarrera debalde izanen dute. Aurten, maiatzaren 14an izanen da besta. Bazkide Babeslea, berriz, 30 euroko urteko saria ordainduz, onura horiek guztiez gain, urteroko festako afaria debalde izanen du, baita taldeak egiten duen bazkideen batzarretara joateko eskubidea ere. brt@baztanrt.com helbidean edo 619 196780 telefonoan.

GIZARTEA → MARTXOAREN 5EAN AMAIURREN

Kontzentrazio partzelarioari buruzko hitzaldia antolatu dute

Beintza-Labaiengo esperientzia azalduko dute

TTIPI-TTAPA

Baztango udalak kontzentrazio partzelarioari buruzko mintzaldia antolatu du Amaiurren, Otsondo barridean elkartearen. Kontzentrazio partzelarioarena

Baztango nekazari profesionalen aspaldiko eskaria da eta horri buruz Mikel Imazekin, Nafarroako Gobernuako kontzentrazio partzelarioko zerbitzu buruarekin eta Jon Telletxea eta Alejandro Saldias Beintza-Labaindarrekin solasaldia egingen da. Beintza-Labaienen kontzentrazio partzelarioari buruz lehendabiziko gogoetak 1993an hasi ziren

eta 1996an Nafarroako Gobernuak abiarazi zuten. Kontzentrazio partzelarioa 2006an akitu zuten. Hitzaldiaren helburua kontzentrazio partzelarioa zer den azaltzea eta horren on-

dorioen berri ematea da.

Mintzaldia martxoaren 5ean egingen da, goizeko 11:00tan. Hitzordua interesa duten baztandar guztiendako da.

Ba al zenekien

Zaindari Ikusezina filma grabatzeko gremioetako profesionalendako lan poltsa osatzeko eta estra lanak egiteko aktoreak hartzeko casting deialdiak egin dituztela.



OSPAKIZUNAK → OTSAILAREN 7TIK 9RA

Urtero bezala inaute arrakastatsuak ospatu dituzte

35 urte pasa
dira Modesto
akordeoia
jotzera etortzen
hasi zenetik

Iñigo IMAZ

Igandean, elkarrekin gosaldu eta Dantxarriean zehar aritu ziren gazteak. Aurten 35 urte bete dira Modesto Urdazubiko inauteetan gazteekin batera eta bentaz benta, akordeoia jotzen hasi zenetik. Bontetan jai giroan ibili ondoren, astelehenean, Jaioneren trikiritza eta Marijosereren pandereta lagun zituztela, 50 gazte inguruk Leorlas, Alkerdi eta Larrainta auzoetako etxeetan zerbait edan eta mokadutxoren bat dastatzeko parada izan zuten. Atsalde partean, Karreteron pintxo jatea izan zuten eta Mo-

destoren musika emaldiarekin amaitu zen eguna. Asteartean, berri, Landibar, Telleria, Iribere eta herriko plazan barna ibili ondoren, 2016ko inauteak amaitu ziren.

TTIPI TTAPari egin aipamenean, gazteek modu oso positiboan baloratu dituzte aurten go inauteak: «Arras ongi pasatu ditugu inauteak eta eskerrak eman nahi ditugu herriko jendeari guri hain ongi tratatzeagatik, milesker».

Bertso bazkaria

Nikolaurenea jatatxean bertso bazkaria antolatu dute aurten ere martxoaren 5ean, larunbata, 14:00etan hasita. Julio Soto eta Julen Zelaieta ariko dira kantari. Txartelak martxoaren 4a baino lehen erreserbatu behar dira, 32 euroren truke.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Eskolako irakasle, haur eta gaztetxoak ortzira leian mozarrotu ziren, inauteak ospatzeko (goitian). Aurtengo mozarroaren gaia, Luzaideko bolantak, Arizkungo inauteak, artzarena eta gal-daragile tikiak. Eskuinean, Igandean, ohitura zaharrei eutsiz, herriko haurrendako besta antolatu zuten Indiano Baitan. Behean, gazteak inauteak ospatzen.



ANZABAL INMOBILIARIA



- Zurich Aseguruak
Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
- Lan aholkularitza
Nomina eta Aseguru Sozialak
- Aholkularitza fiskala
Errenta Deklarazioa, BEZA...
- Inmobiliaria
Baserri, borda, pisu, etab... salmenta eta alokairua
- Gestoria

Santiago, 15 • ELIZONDO • T./F. 948 580 804
anzabal@anzabal.com • www.anzabal.com



Pinturas
Iñaki Alzuyet
margoak

Tel: (0034) 659 862 417
31711 URDAZUBI (Na)

FATXADAK,
BARNEALDEAK
eta
PLADURRA

pinturasalzuyet@yahoo.es

ZUGARRAMURDI

GIZARTEA → OTSAILAREN 3AN PARLAMENTUAN

Santa Ageda bezpera ospatu dute lehen aldiz

Bi herrietako haurrak ibili ziren kantari, mokanesa lepoan eta makila eskutan zutela

Margari eta Koro

Euskal Herrian hain errotua den Santa Ageda eguna, ez da sekula ospatu gure herrian aurtzen arte.

Matematika eta halakoetaz gain, gaur egungo eskoletan beretze gisako gaiak ere lan-tzen dituzte eta horietako bat gure kultura eta usaia zaharrak dira.

Hori dela eta, eskolan historia eta kantuak ikasi ondotik, hortxe ibili ziren bi herrietako haurrak, mokanesa lepoan eta makila esku-

tan, Santa Agedari kanta-kantari karriketan.

Inauteriak gaztetuak

Inauteriak berriz, betitik ospatu dira gure herrian, mendian gordeka bazen ere, ez ziren behin ere galdu. Aldaketak aldiz, izan ditu bai ospatzeko egune-tan (ia ez da astelehen eta asteartean ospa-tzen), eta baita eskean ibiltzen diren tokiei da-gokionez ere (aise gu-ttiago gaur egun).

Eta aurtzen ere ber-tze aldaketa ttiki bat eman da, guztiz lojiko-a: “betiko” batzuk utzi du-te inauteriak egiteaz, eta gaztetxo andana bat sartu da, adinaren ba-tez-bertzekoa franko jautsiz. Hori bai, umo-rea eta kantatzeko go-goa ez omen da nion-dikan jautsi. Biba zuek!!!



Santa Agedari kantan, Martineko atean

ARGAZKIA: MARGARI ETA KORO



Inauteritako taldetxoa, (Jaione akordiolaria falta).

ARGAZKIA: MARGARI ETA KORO

Titiriteroen Topaketa martxoaren 19-20an

Bi urtetik behin ospa-tzen den Titiriteroen Topaketa, martxoaren 19 eta 20an ospa-tuko da.

10. edizioa izanen denez, programa bere-zia prestatzen ari dira antolatzaileak. Hurrengo alean emanen ditu-gu berri zehatzagoak.



ARGAZKIA: MARGARI ETA KORO

Titiriteroen Topaketarako herria apaintzeko prestatzen ari diren espiralak.

JĀTĀTĀKĀ-ĒRĒĒTEĀIĀ
MONTXO
OSTĀTĀĀ · TĀBĀKO · DĒNDĀ

Egunero irekia
 09:00etatik
 02:30era

Dantxarinetik
 2 km.tara

PLATER KONBINATĀĀK · OGĪTĀRTEKOĀK
 MENUĀK ENKĀRGĀZ · PĪNĀKOĀK
 ESPEZĪALĪSTĀK ARRĀĪN ETĀ TXULETOĪĀN

ANZAN-BORDA · URDAZUBĪ | 948 599 039
 montxoblanco@gmail.com

T. 902 210 800 • www.venta-peio.com

VENTA PEIO
 Bera (Administrazioa) 31780 BERA Dantxarinea 31712 URDAX Ibardin 31780 BERA Luzaide 31660 LUZAIDE

tabac Landibar restaurant super tabac cadeaux maroquinerie

GIZARTEA → GAZTEEI ZUZENDUTA

Prezio apaleko bi etxe salgai jarri ditu aintziran Herriko Etxeak

Martxoaren 8a baino lehen egin behar dute eskaera erosi nahi dutenek

Franck DOLOSOR

Herriko etxeak zonbait lur saldu ditu azken urteetan merkatuko prezioaren azpitik herriko gazteek etxeak altxa ditzaten, bereziki aintzira aldean hiru etxegune eginez: Ortzana, Inta eta Oihamun. Bazter guzietan gertatzen den espekulazioa saihesteko 20 urte iragan arte jabe berriek ezin dute lurra eta etxea saldu herriko etxeak salerosketa kontrolatu gabe. Gisa hontan, berriki egin diren bi etxe salgai daude herriko etxearen begiradapean. Lehenak 160 metra karratu ditu, terraza bati eta sukaldeari hurbil den egongela haundia, lau logela eta bi garbigela. Prezioa 210.000 euro.

Bigarrenak 120 metra karratu dauzka, terraza bati eta sukaldeari hurbil den egongela haundia, lau logela eta garbigela bakarra. Prezioa: 182.000 euro. Etxe hauek erosi nahi lituzketenek eskaerak egin behar dituzte martxoaren 8a aintzin. Beren fami-

lien aurkezpena, familia liburuaren kopiarekin, herriarekin duten lotura eta atxikimendua, eta 2014ko zerga aitortpena aurkeztu beharko dituzte. Etxe hauek erosi nahi lituzketen hautagaiek ez dute ondusunik izan behar gaurko egunean, ekimen hau eginga baita gazteak jabe bilaka daitezzen. Xehetasun gehiago herriko etxeko herrigintza sailean eskaintzen dituzte Pantxo Valenciaren eskutik.

Pierre Hirigoyen beti buru

Gudari ohien elkar-teak Pierre Hirigoyen auzapez ohia izendatu du berriz batasun horren ohorezko presidente gisa. Memoria eta gudari ohien arteko elkartasuna sustatzen dituen taldeak 67 kide ditu eta gehienek parte hartu zuten berriki egin zen biltzar nagusian. Dena den, gero eta lagun gutiago biltzen dira urte guziz batzuz hiltzen baitira, azkenak: René Bereau, Pierre Neguelouard eta Grégoire Sein senper-tar ezagunak. Hiru gizon hauen eta indarke-riaren biktimen alde minuta bateko isilunea egin zuten aurtengo ekitaldi eta ateraldien aipamena egin aitzin.



ARGAZKIA: FRANCK DOLOSOR

Hogei urte iragan arte jabe berriek ezin dute lurra eta etxea saldu Herriko Etxeak salerosketa kontrolatu gabe.



ARGAZKIAK: FRANCK DOLOSOR

Oporrak elurretan

Ihauterietako oporrak elurretara joateko baliatzen ditu jendeak Ipar Euskal Herrian. Egun hauetan, ehunka lagun, hauen artean herritarrak ere San Martingo Harriko eski estaziora doaz familien lerratoki atseginez gozatzera. 1.600 metrako goratasunean den estazioaren pista jostagarrien ondoan hupatzeko tresna berriak ezarri dituzte eta eraikinen bazterrak birmoldatu dituzte. Pirinio Atlantikoetako departamenduko kontseiluak 25 milioi euroko inbertsioa egin du azken hilabeteetan Nafarroa, Zuberoa eta Biarnoko Baretous ibarra lotzen dituen atsedeen gunea hobetzeko. Aurten lehen aldikoz hotz gorria ederki jasaten duten xakurrekin ibilaldiak egin litezke elurran barna.

SARA

GIZARTEA → OTSAILAREN 27AN

Presoen aldeko afaria eginen da larunbatean

Lur Berri gelan

Afalondoan Zugarramurdiko Tumatxa taldeak giroa emanen du eta Gaztetxeak atek irekiko ditu

bere atek idekiko ditu. Izenak emateko 06.58.51.94.39 edo 06.70.07.76.56 zenbakira deitu behar da.

Selauru hustea

Martxoaren 6an, igandearekin, eskola publikoak selauru huste bat antolatzen du polikiroldegian. Bertan ostatu bat izanen da eta taloak erosten ahalko dira. Atek idekiko dira goizeko 8 etatik goiti eta sartzeta urrik izanen da. Leku bat erreserbatzeko 06.77.83.94.85 zenbakira deitu behar da otsailaren 26a baino lehen. Leku batek 2x3 metrako tamaina du eta 15 euro balio du.

Joana GERENDIAIN

Otsailaren 27an Lur berri gelan presoen aldeko afaria eginen da. Afarirako txartela 20 eurotan da. Aperitifa alaitua arratseko 7etatik goiti hasiko da, afalondoan zugarramurdiko Tumatxa taldeak giroa emanen du. Gaua ongi bukatzeko gaztetxeak



UTZITAKO ARGAZKIA

Baterako autobusari harrera beroa

Joan den otsailaren 13an, larunbatearekin, pertsona multzo eder bat herriko etxearen aitzinean elkartu dira harrera ona egiteko herriz herri ibilki den Baterako autobusari. Elkarretaratze horrekin Ipar Euskal Herrian herri elkargo bakar baten sortzeko proiektuari haien sustengua erakutsi diote. Heldu den udaberrian herriek bozkatu beharko dute proiektu honen alde edo kontra, negu huntan egin den kontsultaren arabera herritarrak alde agertzen dira.

Kirol emaitzak

Otsailaren 7an errubiliariek Saran galdu dute 10-00 Sauveterreko ekiparen kontra, esku-baloian seniorrek ere galdu dute 27-23 Barzuneko ekiparen kontra. Otsailaren 14an esku-baloian seniorrak Mairanen jokatu eta galdu dute 26-18.

Frantziako xapeldun

Aña Oronoz eta Marie Goyenetche herriko pilotariek minimes mailako Frantziako pala xapeldun irabazi zuten otsailaren 13an Arcangueseko trinketean. 40-16 irabazi zioten Baidorriko Zaharrer Segui taldeko bikoteari.



BORDALARRA
Carnes Sein Haragiak, S.L.
Industrialdea, 27 • MAFRIDO ERAIKINA • DONOSTIA
Tel. 943 467 244 943 467 444 • Fax. 943 473 726 • carnessein@bordako.com

ola
SAGARDOTEGIA
www.olasagardotegia.eus
102 Meaka auzoa • 20304 IRUN • Tfnoa 943 623 130

Bertako sagarrarekin egindako sagardoa
250 lagun eserita
Klimatizatua
Sagardotegiko menua
TXOTX GARAI AIREKIA

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA SARE SOZIALEAN

facebook

www.facebook.com/ttapi.eus

GRUPO TANATORIO TALDEA
IRACHE
MALDAERREKA S.L

24 ORDUKO TELEFONOA
948581959 | 948637404

BERA (SAN JOSE) | BERA (ITURLANDETA)
DONEZTEBE (SAN PEDRO) | ELIZONDO (BAZTANDARRA)
ELIZONDO (BAZTAN) | LESAKA

TRASLADOAK IRUÑA, DONOSTIA
ETA IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

Martzutzak
ZURE OSPAKIZUNETARAKO BEHAR DUZUN GUZTIA
 ♥ Soinekoak
 ♥ Ilerako apaingarriak
 ♥ Poltsak
 ♥ Bisuteria
 ...
 Bidasoa, 12 • BERA
 948 631 425



EZKONTZAK

Fermin Miguel Jorajuria Martinez eta **Maria Dolores Garcia Lasheras**, Doneztebe eta Valentziakoa, Donezteben otsailaren 14an.
Jon Antzizar Ibarra eta **Izaskun Inbuluzketa Iturburu**, Sunbilla eta Elizondokoa, otsailaren 5ean Sunbillan.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

SORTZEAK

Unai Irisarri Mugika, Etxalarkoa, otsailaren 4an.
Andoni Rey Hurtado, Doneztebekoa, otsailaren 8an.
Idoia Pikabea Sansiñena, Lesakakoa, urtarrilaren 27an.
Aizpea Terreros Altzugarai, Lesakakoa, otsailaren 4an.
Juel Igoa Ansalas, Etxalarkoa, urtarrilaren 28an.
Kattalin Ordoki Hualde, Arantzakoa, otsailaren 1ean.
Eikhem Cabanel Ibargarai, Sarakoa, otsailaren 2an.
Nahia Zubiri Loiarte, Goizuetakoa, otsailaren 14an.
Laiene Zubiri Loiarte, Goizuetakoa, otsailaren 14an.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

Rekordatorioak egiten ditugu




Nahi duzun argazki eta testuarekin prestatua

ttipi-ttapa
 Koskontako b., 7 | LESAKA | 948 635 458

HERIOTZAK

Maria Jesus Garate Mutuberria, Lesakakoa, otsailaren 5ean, 86 urte.
Juan Zabaleta Aierdi, Leitzakoa, otsailaren 5ean, 84 urte.
Alicia Alava Sanz, Elbetekoa, otsailaren 5ean, 87 urte.
Concepcion Sobrino Petite, Elizondokoa, otsailaren 7an, 93 urte.
Joxemari Astibia Olano, Leitzakoa, otsailaren 8an, 65 urte.
Victor San Jose Kalparsoro, Elizondokoa, otsailaren 8an, 67 urte.
Margarita Aiertza Bereau, Lesakakoa, otsailaren 8an, 89 urte.
Maria Pilar Mitxeo Martiskorena, Donamarikoa, otsailaren 11n, 91 urte.
Andresa Irigoien Irigoien, Arraioz-Zigakoa, otsailaren 11n, 85 urte.
Patxi Oiartzabal Irigoien, Elizondokoa, otsailaren 12an, 70 urte.
Maria Gartziarena Labaien, Leitzakoa, otsailaren 12an, 85 urte.
Concepcion Iturralde Olaetxea, Zigakoa, otsailaren 15ean, 99 urte.
Juliana Inda Goñi, Sunbillakoa, otsailaren 17an, 102 urte.

Rekordatorioak egiten ditugu



Koskontako Bidea, 7-1
 LESAKA | 948635458




Pakita SANZBERRO ELIZALDE

IV. URTEURRENA

Etxalarren, 2012ko otsailaren 23an

Betirako gure bihotzetan

BERE FAMILIA



Natividad ECHEVERRIA ZOZAYA

Zozaian, ilbeltzaren 1ean

Amatxo... Eskertu nahi datzugu

Zu gure ama izana,

Etxeko lanaren zama

Zuk hartu izana.

Ttikitan, gaztetan, heldutan

Zu ondoan izana.

Elkarri laguntzen, barkatzen, erakutsi izana.

Egunero, aldiero, beti...

Antxoneko zutabe izana.

Esker mile amatxo!!

ZURE SEME-ALABAK

Erremontelari profesional moduan bere azken partida jokatu du Patxi Olazar doneztebarrak otsailaren 13an. Xanti Utergarekin bikote eginez, Koteto Ezkurra osabaren eta

Joxe Etxeberria III.ren kontra aritu da. Baita irabazi ere, 30-40. Beraz, herriko bertze hiru erremontelariarekin jokatu duen partida nagusiarekin erran du adio Olazarrek.

Gainera, enpresaren, lankide izan dituenen, lagunaren eta familiaren opariak ere jaso zituen, baita Elena Zabala Ezkurra lehengusinak dantzatutako Aureskua ere.

Patxi OLAZAR | Azken partida jokatu du erremontelari profesional moduan

«Erremonteak gauza aunitz eman dizkit, betirako lagunak batez ere»

A. AROTZENA | DONEZTEBE

2003ko martxoaren 1ean egin zuen debuta Olazarrek Euskalen. Ongi gogoan duenez, Larrearekin batera 35-29 irabazi zien Uterga eta berekin batera debuta zuen Migel Mari Urrutia saldiastarrari. Gerroztik, binakako bi final jokatu ditu Koteto Ezkurra osabarekin batera, baina biak galdu egin ditu: «Lehenbizikoa Zerberio II eta Auzmendiren kontra galdu genuen eta bigarrena Urriaza eta Barrenetxea IV.aren kontra. Bien artean urte batzuk pasatu ziren», aipatu du Olazarrek. Beharbada horiek dira kirol arloko bere oroitzen onenak, baina, txapeletik hain hurbil egon eta ezin irabazi, aldi berean hori da gelditu zaion arantzatxo. «Bertze txapelketa ttikiago batzuk irabazi ditut, Sagardoaren Txapelketa... baina pena da ofiziala ez lortu izana», dio.

Doneztebeko lau erremontelarik jokatu dute Olazarren agurreko partidari, nahiz eta hasiera batean, afizionatutik hasita bere ibilbide beretsua egin duen Agirrezabalarekin aritzeko. «Hori ezinezkoa izan da eta azkenean Doneztebeko lau erremontelari aritu gara eta hori ere aski berezia da. Larunbateko



ARGAZKIA: MAIALEN ANDRES

Patxi Olazarrek azken partida jokatu du erremontelari profesional moduan.

despedidan nere familia eta lagun guztiak izan dira, momentu hunkigarria izan da. Partidaren ondotik herrian afaldu dugu», onartu digu Olazarrek.

13 URTE PROFESIOALETAN

Profesional munduan eman duen 13 urteotan, dudarik gabe, egin dituen betirako lagunekin gelditzen da: «Lagun aunitz eginda banoa, eta bizi izan ditudan momentu onak

HIERARKIA LAUSOAGOA

«Lehen kategoriak arras definituak zeuden, batetik estelarrak jokatzeko figurak zeuden eta bertzetik, lehenbiziko eta laugarren partidak jokatzeko genituenak. Gaur egun ez da hala eta puntu-puntan ez gaudenak ere badugu izarrekin batera jokatzeko aukera gehiago».

kontaezinak dira. Zoragarria izan da, hainbat gauza on aportatu dizkidan hainbertze jende ezagutu izana. Nik debutatu nuen garaian bertze sei erremontelari hasi ziren, Ion, Agirrezabala, Urrutia... eta horiekin ez ezik, bertze erremontelari aunitzekin harreman handia izan dut».

Aunitzetan galdetu diote Koteto Ezkurra handiaren iloba izateak mesede edo kalte egin dion. Olazarren errane-

tan, «beti zaila da Koteto bezalako mito baten iloba izatea, baina nire kasuan positiboa izan da, beti aunitz lagundu dit eta aholku onak eman dizkit». Horren erakusgarri, agurraren partida bukatuta emandako besarkada.

Erremonteak azken urteetan bizi izan dituen gorabeherak eta urte zailak ere hurbiletik ezagutu ditu. «Zorionez unerik txarrenak pasatu ziren -dio Doneztebeko erremontelariak- Galarreta eta Euskal itxi ere egin zituzten, baina norabidea zuzendu ahal izan da. Beharbada hori da aldaketa handiena, orain bakarrik Galarretan jokatzeko dugu eta ez Euskalen. Lehen partida gehiago jokatzeko ziren eta koadroa zabalagoa zen. Horrela atseginagoa zen, beti pilotaleku berean jokatzea ez baita onena. Bertze aldaketa bat ere somatu dut: lehen hierarkia garbi bat zegoen, gaur egun hain argi ez dena... Kategoriak arras definituak zeuden, estelarrak jokatzeko figurak zeuden eta bertzetik, lehenbiziko eta laugarren partidak jokatzeko genituenak geunden... Gaur egun ez da hala eta puntu-puntan ez gaudenak ere aukera gehiago ditugu izarrekin batera jokatzeko».

HERRI KIROLA → MARTXOAREN 6AN SUNBILLAN

Ramon Latasa omenduko dute hil zela 25 urte bete direnean

Donato Larretxea eta Iker Vicenteren arteko desafioa izanen da eta Patxi Astibiak oinbikoa moztuko du 73 urterekin

TTIPI-TTAPA

Ramon Latasa aizkolari handia izandakoa oraindik gogoan daukatela erakutsi nahi dute Sunbillakoek. 2002tik honat urtero Ramon Latasa Saria antolatzen da Sunbillan. Horrez gain, 2007an inauguratutako herriko plaza berriak Ramon Latasa plaza ize-

na du. Bertan aizkolari handi honen eskultura bat paratua dute. Historiako aizkolari hobereenetako bat izan zen eta 1991ko otsailaren 25ean hil zen.

Oraingoan, omenaldi berezi bat eskaini nahi diote Sunbillakoek Latasari bere heriotzaren 25. urteurrenean. Horretarako, jaialdi dotorea antolatu dute sunbillarrek. Martxoaren 6an izango da Sunbillan. Lehenengo, 11:00etan bere oroimenez meza izango da eta segidan, aizkora probak.

Eguraldiak laguntzen badu saioa Ramon Latasa plazan izanen da eta euria eginen balu, udal pilotalekuan.

Hasteko, Latasaren

garaiko aizkolari handienetako bat arituko da aizkora; Patxi Astibia (73 urte), eta oinbiko enbor bat moztuko du. Ondoren, aizkora desafio berezia jokatu dute Donato Larretxea aizkolari beteteranoak eta Iker Vicente aizkolari gazteak. Donato Larretxeak, aizkora erabiltzen diren neurri guztietako enborrak moztu beharko ditu, denetara, zazpi enbor; kanakoa (108 ontza), 80 ontzako, oinbikoa (72 ontza), (60 ontzako), kanakerdiko (54 ontza), 45 ontzako, eta oinbikoa (36 ontza). Oraindik inork ez du egin horrelako lanik plaza batean.

Iker Vicentek, berriz,



ARGAZKIA: KUTXA FOTOTEKA

Ramon Latasa Doneztebeko Bear-Zanan.

16 kana-erdiko ebaki beharko ditu.

Aizkolari bakoitzak bi laguntzaile izanen ditu ondoan: erakuslea eta botileroa. Bakoitzak bere enborrak plazaratuko dituzte, eta bi aizkolarien asmoa enbor onak

eramatea da plazara. Biek ere omenaldia egin nahi diote Ramon Latasari, marka handi bat eginez.

Jaialdia ikusteko, gainera, ez da sarrerarik ordaindu behar izanen.

PILOTA → OTSAILAREN 27AN IRURITAKO ARANABIAN

Paxaka txapelketaren finala iruritarrek jokatuko dute

Herriko lau taldek jokatzekoak zituzten finalerdiak larunbatean

TTIPI-TTAPA

Baztan-Errekako 16. Paxaka txapelketan parte hartu duten hamar taldeetatik sei iruritakoak ziren eta horietatik lau jokatzekoak zituzten finalerdiak joan



ARGAZKIA: JUAN MARI ONDIKOL

Iruritan jokatuko dira larunbatean finala eta hirugarren posturako lehia.

den larunbatean: Lehenbizikoan **Irurita B** (Gorka Urtasun, Karlos Goikoetxea eta Jon Sansiñena) eta **Irurita F** (Joseba Urtasun, Patxi Barberena eta Miguel Angel Iñarrea) izan dira

aurrez aurre; bigarrenetan, **Irurita C** (Guillermo Etxenike, Iñaki Etxandi eta Mitxel Etxenike) eta **Irurita D** (Oskar Urrutia, Egoitz Prim eta Jagoba Ramos) aritu dira. Finalerdietako ira-

bazleek jokatuko dute finala otsailaren 27an, larunbatean 18:00etan Aranabian. Ordubeten lehenengo hirugarren postua lortzeko lehia jokatuko dute galtzen dutenek.

otsailak 25 - martxoak 11

Informazioa bidaltzeko: info@ttipi.eu edo 948 63 54 58

| Ospakizunak | Jardunaldiak | Bertsoak |
|---|---|---|
|  <p>ERRATZU/BERA 2016.02-2016.03</p> <p>Bertako Haziaren Eguna Erratzun eta Beran</p> <p>Haziaren Egunaren lehenbiziko saioa Erratzun hilaren 27an egingen da eta bigarrena Beran martxoaren 5ean. Hazien trukaketak, hitzaldiak... antolatatu dituzte.</p> |  <p>ELIZONDO/DONEZTEBE 2016.02.26/27</p> <p>Saharako Errepublikar Arabiar Demokratikoa gogoan ekitaldiak</p> <p>Saharako Errepublikar Arabiar Demokratikoaren urteurrenean, sentsibilizazio jardunaldiak antolatatu dituzte Elizondon eta Donezteben.</p> |  <p>ESKUALDEA 2016.02-2016.03</p> <p>Bardoak Nafarroako taldekako txapelketako saioak eskualdean</p> <p>Bigarren fasean sartu da Bardoak txapelketa eta martxoaren 5era arte jokatzekoak diren sei saioetatik hiru eskualdean egingen dira: Leitza, Igantzi eta Beran.</p> |

Erakusketak

ELIZONDO

'Emakumeak Afganistan' argazkiak

Otsailaren 29tik martxoaren 10era Arizkunenean 17:00etatik 20:00etara astez.

Ikastaroak

LESAKA

Escola eta jangeletako lehen sorospenez

Otsailaren 27an Harriondoa Kultur Etxean. Lizen-ematea otsailaren 25a baino lehen.

BERA

Zoru pelbikoari buruz

Martxoaren 5ean Beralandetan 17:00etan.

Erorketak prebenitzeko

Martxoaren 9an Jubilotekan, denei irekia. Lizen ematea, norberaren osasun zentroan.

BAZTAN

Hezkidetza tailerrak

Martxoaren 3, 10 eta 17an Lekarozko institutuan eta martxoaren 14an Elizondoko Lanbide Eskolan.

ARANO

Eskulanak umeekin

Martxoaren 12an 10:00etan.

Hitzaldiak

ELIZONDO

Hassana Aalia aktibista hizlari

Otsailaren 26an Arizkunenean 19:30ean.

'Berdintasuna kirolean: lorpenak eta erronkak'

Martxoaren 2an Ainhoa Azurmendirekin, Arizkunenean (19:30).

Ametsen liburuaz

Martxoaren 4an Jokin Urain preso eta iheslariaren ahotza biltzen duen liburuaz, 19:30ean Arizkunenean.

BERA

UEUren eskutik

Otsailaren 26an Estitxu Fernandezekin *No-la bizi nahi dut?* Labiaga Ikastolan.

ERRATZU

Jakoba Errekondo

Otsailaren 27an 11:30ean Etxeleberteko Txokoa Elkartean.

DONEZTEBE

Polisarioko gudari ohi sahararrarekin solasean

Otsailaren 27an 19:00etan zineman.

AMAIUR

Kontzentrazio partzelarioari buruz

Martxoaren 5ean 11:00etan Otsando elkartean. Mikel Imaz Nafarroako Gobernu kontzentrazio partzelarioko zerbitzu burua eta Jon Telletxea eta Alejandro Saldias beintza-labaiendarrak.

Ipuin-kontalariak

BERA

Amaia Elizagoienekin

Martxoaren 4an Herri Liburutegian 17:30ean.

PROPOSAMENA

ESKUALDEA

Emakumeen Nazioarteko Eguna

Martxoaren 8a Emakumeen Nazioarteko Eguna da eta horren harira, aurten ere ekitaldi saila antolatatu dituzte gure eskualdean: hitzaldiak, antzerkiak, tailerrak, afariak, elkarretaratzeak, dokumental emanaldiak... Horiez gain, aurten zazpi garren aldiz mendi ateraldia ere antolatatu dute Bortzirietako emakumezkoek, martxoaren 13an. Aldi honetan Beran egingen dute.

**Antzerkia**

IRURITA

'Zergatik Jamil?'

Otsailaren 28an Gizar-te Bilgunean (19:00).

'Futbolariak eta printzesak' antzezlan

Martxoaren 16an LHko 4. eta 5. mailako ikasleentzat Gizar-te Bilgunean, 11:00etan.

DONEZTEBE

Bakarrizketa emanaldia

Martxoaren 8an Herriko Ostatuan (19:00).

BERA

'Susanaren iraultza'

Martxoaren 11n Kata-kun, 20:30ean.

Filmak

BERA

'Neskatoak' dokumentala

Martxoaren 6an Kultur Etxean, 19:00etan.

LEITZA

'Papá o mamá'

Martxoaren 6an 19:30ean, zineman.

'3 corazones'

Martxoaren 13an 19:30ean, zineman.

DONEZTEBE

'Coria y el mar'

Otsailaren 27an, 19:00etan zinean.

Bi film ikusgai

Otsailaren 28an *Atrapa la bandera* (16:30) eta *El bar coyote* (18:30).

Bertsolaritza

LEITZA

Bardoak-en barne

Otsailaren 26an Leitza Atekaaberts eta Lesakako Unibertsolariak Atekaabertzen.

ERRATZU

Bertso-afaria

Otsailaren 27an Julio Soto, Andoni Egaña

eta Iker Zubeldiarekin, 21:00etan Etxeleberteko Txokoa Elkartean.

IGANTZI

Bardoak-en barne

Martxoaren 4an Lesakako Unibertsolariak eta Leitzako Ateka-berts Biltoki Elkartean, 19:30ean.

BERA

Bardoak-en barne

Martxoaren 5ean Berako Larungo Antanak eta Etxarri Aranazko Einnekin, Katakun 21:00etan.

Berto bazkaria

Martxoaren 12an Onintza Enbeita eta Nerea Elustondorekin, Zalain jatetxean.

ORONOZ MUGAIRI

Berto-afaria

Martxoaren 5ean Julio Soto eta Jon Maiarekin Pierresenea jatetxean.

URDAZUBI

Berto-bazkaria

Martxoaren 5ean Julio Soto eta Julen Zelaie-tarekin, 14:00etan, Nikolaurenea jatetxean.

ELIZONDO

Berto saio musikatua

Martxoaren 6an, Alaia Martin, Oihana Iguaran, Ane Labaka eta Amaia Agirre kantuan eta Ainhoa Aranburu aurkezle, Arizkunenean (19:00).

Ospakizunak

ERRATZU

Bertako haziaren eguna
Otsailaren 27an.

BERA

Hazien eguna

Martxoaren 5ean.

Dantzak

LEITZA


Aurrerako dantzariak
Korrontzi dantzan

Martxoaren 19an Kiroldegian, 20:00etan.

ENTRETENIMENDURAKO GAIAK



zebari bisita ospitalera. Familiako kontu zahar-
rrak eta herdoilduak; zulagarriak. Tartean eta
halabeharrez, narrazioa poesiarekin josiko da,
oraina iraganarekin saretzen den bezala eta zen-
tzumenak pasioarekin. Baina zer gertatu da Mai-
derren nobelan Idoiaren ilustrazioak txertatu di-
tugunean? Nobela desnobela egin dela eta au-
to argitalpena hegaka abiatu dela. Idazlearen le-
hen liburua 16 urtetik gorakoei zuzendua dago.



E
laudi taldea zenetik etorriak, Mirentxu Agerre
eta Pantxix eta Marie Bidart hirukoteak osa-
tzen du Behi Bideko Andere Xuriak (BBAX) talde
berria. Bere lehen diskoan, *Gure etxen badira*
herri kantak bildu dituzte baina bere moldera.
Formula akustikoa baliatu dute eta kantuak pan-
dero, sahetseko flauta, gitara eta cavaquinhoa-
rekin uztartzen dituzte. Errepertorioa, Marie Bi-
darten tesia lanerako artxiboetatik abiatu zen.
Emeki emeki euskal kantutegiko zonbeit kantu
xaharren ber orkestratzen ibili dira, batzuk kasik
ahantziak, batzuk beti modan daudenak.



E
uskal mitologiaren ikuspegi orokor bat plaza-
ratzea da webgune honen helburua. Euskal mi-
tologiaren ezaugarriak, jainko eta pertsonaiak, eleza-
harrak... aurkituko dituzte bisitariek. Joxe Miel Ba-
randiaran etnologo jakintsuak euskal mitologiaren
inguruko testigantzak jasotzeko egindako lana ba-
liatu dute, batez ere, bildumatxo hau osatzerako
orduan, bai pertsonaien ezaugarriak eta elezaha-
rrak aipatzerakoan, eta baita, irudiak egiterakoan
ere. Euskal Herriko mapa mitologikoa ere bertan
ikus liteke, hainbat leze, mendi eta txoko berezi ja-
soaz.

Kontzertuak

SARA

Tumatxak taldea

Otsailaren 27an Lu-
berri gelan, 19:00etan.

LESAKA

Arozenatarren ttun- ttuna, txistu emanaldia

Otsailaren 27an Herri-
ko Etxean, 20:00etan.

BERA

Klarinete topaketa

Martxoaren 5ean Kul-
tur Etxean 12:00etan.

IRURITA

Baztango haur kantarien V. topaketa

Martxoaren 5ean,
18:30ean Parokian.

DONEZTEBE

Mendi Abesbatza

Martxoaren 11n Herri-
ko Ostatuan.

Ikuskizunak

DONEZTEBE

Ene-kantak: Baietz dantzan hasi!

Martxoaren 13an ki-
roldegian, 17:00etan.

Azokak

SARA

Selauru hustea

Martxoaren 6an kirol-
degian.

Mendi ateraldiak

BAZTAN

Mendigoizaleen ateraldiak

Otsailaren 28an Leka-
rozitik Unbotora (08:00).

Martxoaren 5ean
Astigarragara (07:00).

DONEZTEBE

Xabierraldira ateraldia

Martxoaren 12an
autobusa Iruñeara.

Ekitaldi gehiagoren
berri izateko, begiratu:
erran.eus

ETXEBIZITZAK
salgai

ORONoz-MUGAIRI. Pisu salgai, 90 m²ko azalerakoa. Etxe mobilizatua, berogailua, igogailua eta trastelekuarekin. 3 logela, egongela, sukaldea eta bainugela ditu. 90.000 euro negoziagarriak. Eta 60 m²ko bajera ere salgai 15.000 eurotan. ☎948 585036.

ANZABAL
INMOBILIARIA

BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA eta IPARRALDEAN

- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

IPARRALDE eta BIDASOA alderdian
- Eskaintzagatik baserriak, bordak eta lurak behar ditugu.

URDAZUBI
- Etxe berri bat salgai, mobilizatua. 2000 m²ko lursailarekin.

DONEZTEBE
- **Aukera:** 102 m²ko pisua salgai. Egoera oso onean dago. 3 logela, jangela, egongela, 2 komun, sukalde mobilizatua eta 17 m²ko trastelekuak.

Tel. 948 580 804
Faxa. 948 581459
anzabal@anzabal.com

ELIZONDO. Akullegi karrikan 2 logelako pisua salgai. Prezioa: 63.000 euro. ☎646 774117.

LESAKA. Berritutako pisua salgai Albistur kalean. 75m²ko azalera du eta bizitzera sartzeko prest dago. Mobilizatuta, bi logela, bi komun, sala eta sukalde berria ditu. Oso eguzkitsua da eta bista ederrak ditu. 110.000 euro. ☎688 861267.



MERKATU TTIKIA

948 63 54 58

info@ttipi.eu edo erran.eu

SAIL HONETAN **IRAGARKIA** JARTZEKO **10€** ORDAINDU BEHAR DA
ARGAZKIAREKIN JARRI NAHI IZANEZ GERO **12€**
IRAGARKI BAKOITZEKO **GEHIENEZ 25 HITZ** ONARTUKO DIRA

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta
INTERNETen hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutzako **3008 0080 56 0703304329** kontuan

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz
sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik

DONEZTEBE. 120m²ko pisua eta 49 m²ko garajea salgai. Pisu argitsua, 3 logela, 2 komun, sukaldea, eta egongela handia. Oso argitsua. Berogailua lurreko sua eta gasarekin. Bizitzera sartzeko prest. ☎676 965394.

BERA. 80 m²ko pisua salgai. Lehenengo solairuan, erdigunean kokatua, Alzate karrikatik hurbil. Guztiz berritua dago, sukaldea estreinatua gabe. Berogailua eta isolamendu ona ditu. Komunitateko gas-tu gutxi ditu, atezainarekin. Prezioa 140.000 euro. ☎608 777926

ELIZONDO. Pisu salgai, 90 m²ko azalerakoa, 1. solairuan. Hall, 2 logela, 2 bainugela, egongela handia, sukalde ederra eta ekipatua. Bal-koia eta 15 m²ko sabaia. Kalefakzioa berritua (gas naturala eta kon-

dentsaziozko galdara berria). Pisu azpian garajea edukitzeko aukera. Toki lasaia eta erdigunetik 3 minutura (Paularena zonaldean). Interesatuei argazkiak igorriko dizkiet. Deitu lasai konpromisorik gabe. ☎609 004983.



ETXEBIZITZAK
errentan emateko

BERA. Agerra auzoan pisua errentan eman nahi da. 3 logela, 2 bainugela, egongela handia, 2 balkoi, igogailua eta berogailua ditu. Deitu 15:00etatik aitzinera. ☎628 512905.

ETXEBIZITZAK
errentan hartzeko

LESAKA edo inguruan etxebizitza errentan hartu nahi da. ☎642 993776.

Bortzirietan **baserri edo borda** bat errentan hartuko nuke, 2 hektarea inguruko lur eremuarekin. ☎655 028593

Baztan eta inguruan errentan hartzeko pisu bila nabil. Altzaririk gabe baldin badago ere berdin hartuko nuke. ☎646 330956.

ETXEBIZITZAK
konpartituak

Elizondoko bizi garen 24 urteko bi irakasle gara eta libre daukagun logela alokatzeko pisukide bila gabilta. Prezioa 200 euro hilean gastuak barne. ☎689 765896.

GARAJELOKALAK
errentan emateko

LESAKA edo inguruan arte eta artisautza tailerra montatzeko bajera edo lokal bila alokairuan hartzeko. Handi xamarra bada hobe. ☎645 013213.

LURRAK
salgai

ARANTZA. Lur eremuak salgai, Emizarreta, Bordenarre eta Egibeltza parajeetan. Katastroko datuen, tipologiaren eta azaleraren inguruko informazio gehiago: *albis-mendi@gmail.com*.

ZERBITZUAK
denetarik

Arreta. Jaiotza edo erlijio irudiak zaharberitzen ditut. ☎647 293044.

ZERBITZUAK
zurginak

ARANTZA
Zurgindegia.....

- Klase guzietako zurgin lanak
- Eskatu aurrekontuak konpromisorik gabe

Joxe Miguel Errandonea
Tel: 948 634 068 - 647 810 144
Gorritibaita - ARANTZA

ZERBITZUAK
psikoanalistak

ROSA BELZUNEGI
PSIKOANALISTA
Kontsultarako eskatu ordua

☎ 948 272011 (IRUÑA)
☎ 948 580975
Jaime Urrutia 42-2.D - ELIZONDO

BASERRIA

DATU ITURRIA: **NAFARROAKO GOBERNUA**
(otsailaren 5etik 12ra bitarteko prezioak)

| | |
|--|---|
| <p style="text-align: center;">ZERRIKIA </p> <p>Zerrikumea (19 kilo): 36 €</p> <p>Zerri gizena 0,955 € kiloak.</p> <p>Zerramak: 0,540 € Kg/bizirik.</p> | <p style="text-align: center;">BEHIKIA </p> <p>Aretze gizenak:</p> <p>Idixkoak: €/kg. Kanal</p> <p>Extra 4,16</p> <p>1.koa 3,93</p> <p>2.koa 3,75</p> <p>Urruxak: €/kg. Kanal</p> <p>Extra 4,24</p> <p>1.koa 3,97</p> <p>2.koa 3,80</p> |
| <p>Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.</p> <p>Aretze tikiak (15 egun ingurukoak):</p> <p>Aretze mestizoak: urruxak 160,00 idixkoak 228,00</p> | <p>Aretze nabarrak: urruxak 140,00 idixkoak 180,00</p> <p>Zaldikoak: €/k Sortuberrak: 3,03/3,13 Zaldi-behorrak: 1,84/2,04</p> <p>Bildotsak: €/k 6-8 kilokoak: 6,00/7,00 8-10 kilokoak: 5,50/5,80</p> |

ZERBITZUAK

klase partikularrak

Ingelesko eta txinera-ko klaseak ematen ditugu Beran, Agerra auzoan. 40 euro hilabetea. Irakasle titulatuak eta atzerrian ibiliak. ☎600 309807.



LANA

eskariak

Bera edo Lesaka inguruan emakumea eskaintzen da etxeko lanak egin, adineko jendea zaindu, bulegoak garbitu... ☎948 630914/☎678 903294.

Hainbat sektoretan esperientzia duen gizonzkoa lan bila dabil. Gehienbat eraikuntza arloan, pinturan, zurgin lanetan eta lorezaintzan aritua. Orain lan bila dabil edozein sektoretan lan egiteko: garbitze lanetan, eraikuntzan, pinturan, lorezaintzan... ☎616 368 222.

Adineko pertsonak zaintzen esperientzia daukan emakumea, lan bila **interna moduan adineko pertsonak edota haurrak zaintzeko**. ☎644 866609.

LANA

eskaintzak

On-line lanean aritzeko, zerbitzariak, komertzialak, autonomoak edo bertzelako langileak behar dira. ☎699 382673.

URDAZUBI. Burkaitzea jabetxean sukaldari profesionala behar da, esperientzia duena eta batez ere postreetarako eskua duena. ☎675 939036.

Irakasle bat behar da klase partikularrak emateko, DBHko 4.mai-lako ikasle bati. ☎605 811507.

ITUREN. Euskal dan-

tzak erakusteko irakaslea behar da hiru talderi, 40 ikasle ingururi, klaseak emateko. Interesa dutenek deitu telefono honetara ☎646 298 568.

ZUGARRAMURDI. Kattalin jabetxean zerbitzaria behar da, frantses pixka bat dakiena eta esperientzia duena. 10:00etatik 18:00etara lan egiteko. ☎948 599009/☎948 599146.

ZUGARRAMURDI. Zerbitzaria behar da osatu batean lan egiteko. Egunez aritzeko astez edo asteburuetan. Interesatuak deitu 10:00etatik 16:30era, Anabel edo Elenaz galdetu. ☎948 599022.

DONAMARIA. Donamariako Bentan egun osoan lan egiteko zerbitzaria behar da, lan egiteko gogoia duena. ☎948 45070ra deitu edo idatzi: info@donamariako.com.

IBARDIN. Benta Migelen esperientzia pixka bat duen sukaldari-laguntzailea behar da. ☎948 631394.

MOTORRAK

salgai

Automóviles IMOBA
Okasioko ibilgailuen salerosketa
FORD auto berriak eta Km 0

FORD FIESTA 1.25 82CV
2015 - 15.000 KM

OPEL COMBO 2011
DIESELA - 95.000 KM

VW POLO 1.2 TDI 75CV
2011 - 98.000 KM

LEHEN 9.500 €

ORAIN 8.500 €

Irun-Iruña errepidea
N-121-A 63.km **BERA**
948 630 750 | 648 231 361
www.automovilesimoba.com

Seat Leon FR autoa salgai, HXS matrikula,

2014ko ekainekoa. 150 zaldi. ☎679 828780.

Peugeot 406 Turbo Diesel Coupe autoa salgai. 121.700 kilometro. ☎948 393041.



MOTORRAK

tailerrak



ANIMALIAK

salgai

Zerri bat salgai. 140 kilo ingurukoa. ☎669 686626.

OIZ. Ahari muturgorria salgai. ☎606 019337.

Samen arrazako **bisitarako antxumeak** eta Limusina arrazako **bigantxak** salgai. ☎686 927911.

DENETARIK

salgai

Akaziako piketeak salgai. ☎667 885749.

Sei **altzairuzko fregadera** salgai, haundiak, 1,5 metro luze, forma borobildunarekin. ☎948 585036.

ORONOZ. Egurra xehetua salgai. Pagoa eta haritza. Etxera eramannen da. ☎676 242520.



SANTESTEBAN TAILERRAK
Leizoko errep. DONIZITEBÉ 1 948 450 282 F. 948 450 857 donizebe@cred.renault.es

| | | |
|--|---|---|
| KANGOO S.L. PROF. DCI 75CV 2012 urtekoa - 27.950 km | LAGUNA III DYNAMIQUE 2.0 DCI 150 CV 2012 urtekoa - 74.300 km | MEGANE SPORT TOURER DCI 90CV 2012 urtekoa - 54.700 km |
| MEGANE IV ZEN DCI 110CV Modelo berria Estreinatuta gabea Kilometro zero | NISSAN NV200 1.5 DCI 85CV 2010 urtekoa - 104.000 km | NISSAN PRIMASTAR 1.9 DCI 100 CV (9 plaza) 2006 urtekoa - 199.000 kms |

Gerezi egurrekin egindako mahai boro-bila eta 6 aulki salgai. Mahaia bi metro luze arte luzatu daiteke. Arront egoera onean. Prezio negoziagarria. ☎606 735669.



Oso egoera onean dagoen **esne tankea** salgai, hapy markakoa da eta 550 litroko kapazitatea duena. ☎638 332556.

Tailatutako egurrezko bi kutxa salgai. Oso egoera onean. 1,45 metroko luzera, 50 zentimetroko zabalera eta 80 zentimetroko altuera dute. Bakoitzak 600 euro. ☎655 918483.



Ohatze litera salgai. Haur edo gazteendako 3 ohatze ditu. Bi ateko armairua ere bai. Egoe-



ra onean. Merkea: 260 euro. ☎609 004983.

Insa special track **takodun gurpilak** salgai, 100 KM bakarrik eginak. 235/70/R16. 280 euro. ☎Whatsappa: 646 308354.

DENETARIK

erosi

Erremolkea erosi nahi nuke, **bobinak eramatekoa** balitz hobea. 2000 eta 2004 urte artekoa. ☎642 993776.

DENETARIK

bertzelakoak

LESAKA. Goizargi arropa dendan galtza-barrenak hartzen ditugu, nahiz eta bertan erosiak ez izan. Mairu jantziak ere egiten dira. Etorri eta kontsultatu itzazu aukera desberdink. ☎616 520768.

DENETARIK

galdu/aurkituak

Tekel arrazako zakurra falta da, kolore beltz-marroia du. Azkenekoz urtarrilaren 17an ikusi zuten Irisarriko sarreran. ☎653 122074.



urtebetetzeak

Argazki soila: 5€; bikoitza: 10€

Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,42€ko 12 edo 24 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 5 edo 10 €ko txekoa; 4) erran.eus bitartez



IRATXE LOIARTE PETRIKORENA igantziarrik otsailaren 19an 12 urte bete ditu. Zorionak etxekoan partetik. Musuak eta segi horrela, aunitz ikasten.



Sunbillako **EKIÑE BERTIZ ARIZTEGI**, zorionak otsailaren 23an 7 urte bete dituzulako! Muxu handi eta potolo bat Sunbillako eta Etxalarko familiaren partetik baina bereziki, Jone ahizpa eta Joanes, Urki eta Haritz lehengusuen partetik!



Doneztebeko **MIKEL BELARRA ZUBIETAK** hiru urte beteko ditu marxoaren 7an. Zorionak aitaxo eta amaxoren partetik. Muxu handi bat txikitxo.



Berako **IRENEK** marxoaren 6an urteak beteko ditu. Aunitz urtez Sunbillako familia eta etxekoan partetik. Zein abudo pasatzen den denbora. Muxuak.



OIHANA DOMENO ZOZAIK 7 urte bete ditu otsailaren 23an. Aunitz urtez Urrozko familiaren partetik! Muxu asko.



Legasako **NAIARA MENDIBURU ANDREZENAK** 9 urte beteko ditu otsailaren 27an. Muxu potolo bat Legasako familiaren partetik. Ongi pasa eta disfrutat zure eguna!



MAIALEN eta **IRATI ORUBE URIA** ahizpek lau urte beteko dituzte datorren marxoaren 7an. Muxu hagitz handi bat familia guzieren partetik, eta batez ere Jone ahizpa nagusiaren partetik. Prestatu pastel goxo-goxoa denontzat.

hemen agertu nahi duzu?

argazki soila **5** EURO ALDIZKARIAN eta INTERNETEN
argazki bikoitza **10** EURO

Zorionak zuri zorionak zuri zorionak zuri zorionak beti!!!

egin zure erosketa **erran.eus** en

BAZTAN haur eskola

AURREMATRIKULAK
Marxoaren 1etik 16ra, haur eskolan goizeko **9etatik 12etara!**

Animatu zaitezte!

Gure espazioak eta pedagogia ezagutu nahi badituzue, deitu eta gustuz erakutsiko dizkizuegu:

T. 948 580 965
<http://baztanhaureskola.blogspot.com.es/>

berako agenda
.eus

Twitter Facebook

Martxo

berako agenda

Ekitaldien gaineko informazio gehiago: 012 telefonon edo www.berakoagenda.eus

BERAKO UDALA | berako kultur batzordea

4 ORTZIRALEA | Haurrentzako ipuin kontalari saioa (Amaia Elizagoien) "Ameli, ipuinen jostuna" 4-6 urte bitartekoentzat 17:30 Herri Liburutegian

5 LARUNBATA | Klarinete topaketa 12:00 Kultur Etxean Antolatzailea: Isidoro Fagoga Udal Musika Eskola

6 IGANDEA | 'Dokumental estreinaldia Neskatoak. Emakumeak Ipar Euskal Herrian lanean, frankismo garaian. (Jon Abriek zuzendua) 19:00 Kultur Etxean

Antolatzailea: Bortzirietako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea
Laguntzailea: Energia Dlatuak-Bonostia 2016
Argibide gehiago: www.neskatoak.eus

13 IGANDEA | Bortzirietako VII. Mendi Itzulia 9:00 Irteera Mukixu zubitik 13:00 Elkarretaratzea Mukixu zubian 14:00 Bazkaria Zalaín jatetxean Aurretik izena eman 948 63 50 36 telefonon.

Azken eguna izena emateko: marxoaren 10a
Antolatzailea: Bortzirietako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea

15 ASTEARTEA | Berako bestak antolatzeko bilera irekia 18:30 Beralandetan

MARTXOAK 20 APirilak **3** | **Erakusketa**
Ekinox margo erakusketa (Agurtzane Anduetza)
Orduetgia:
Goizez: 10:00-14:00
Arratsalde: 16:00-19:00
Asteartetik igandera
Igande arratsalde eta astelehenean (egun osoa)
ITXITA
Lekua: Berako Kultur Etxea
Inaugurazioa:
Martxoaren 19an, larunbata 17:30ean

Berako Aste Morea

4 ORTZIRALEA | Pintxo-pote morea

5 LARUNBATA | Zoru pelbioari buruzko tailerra 17:00 Beralandetan

8 ASTEARTEA | Konzentra zaratatsua 20:00 Mukixu zubian

11 ORTZIRALEA | Inizerkin Susanaren iraultza 20:30 Kataku Ostatuan

12 LARUNBATA | 'Bertso bazkaria Onintza Enbeita eta Nerea Elustondorekin 14:00 Zalaín Jatetxea
Ondotik Triki-poteoa herriko karriketan
Arratsean Dj. Bakaraka eta Dj. Maikarmens 00:00etatik aitzinera Kataku Ostatuan

Antolatzailea: Goldatz Berako Emakume Talde Feminista

Plan ezin hobea!

eureka! zientzia museoa

Eureka! Zientzia

Museoan, haur, gazte, zein helduek ondo pasatzen dute, zientziak gure eguneroko bizitzan duen alde praktikoari buruzko bitxikeriak ikasten dituzten bitartean.

Museoa Miramongo Teknologi parkean dago kokatuta, ingurune natural batean. Kanpoaldeko lorategian Gipuzkoako eraikin esanguratsuenen maketak ikus daitezke eta bertan haur-parke bat, doako parkin zabala eta piknik gune estalia ere aurkitzen dira. Eureka!-k bisitariari eskeintzen dion beste zerbitzu bat, bertako jatetxe-kafetegia da, egun pasa egiteko lagungarri izan daitekeena, sarrera egun osokoa bait da.

Museoan **170 modulu interaktibo** baino gehiago daude erakusketa iraunkorreko **8 areto ezberdinetan banatuta**. Esperimentu hauei esker, bisitariak argiaren ezaugarriekin liluratuta geratuko dira, gure zentzumenek nola engainatzen gaituzten deskubrituko dute, elektrizitatearekin jolasean arituko dira eta gure gorputza barrutik nolako den ikusi ahal izango dute benetazko organu eta hezurak aztertuz.

Eureka!-n gainera **Planetario** bat dugu, Unibertsoa 360°tako kupula itxurako pantailan ikusteko aukera ematen diguna eta baita **Animalia** izeneko gune berri bat ere. Animalian hiru ekosistemetan banatutako 20 espezio ezberdin bizi dira. Areto hau libreki bisitatu daiteke museoko sarrerarekin baina animalia-aren bat ikutu edota hauei buruzko xehetasun gehiago ezagutu nahi duenari bisita gidatua egiteko aukera ere ematen diogu, gehigarri bat ordainduz gero.

Zientzia Museoaren osagarri gisa, **simulagailu** gela bat ere badugu Eureka!-n. Bertan, errusiar mendian ibili gaitzke, 1 Formula bat gidatu, 3Dko ontzi bat gidatu edota hegazkin bat pilotatu.



Mikeletegi pasealekua 43-45 - 20009 Donostia
Tel. 943 012 478 - www.eurekamuseoa.es
Nola iritsi:
Autoz: GPS: 43° 17' 24.24" - 1° 59' 03.6"
GPS dezimala: 43.290124 - 1.984334





LABORAL
kutxa

**ERRELEBU
LASTERKETA**



**CARRERA DE
RELEVOS**

IRUN
2016
MARTXOAK
20

09:30etik aurrera

Enpresen errelebu lasterketa

Gizon, emakume eta talde mistoentzako 4 x 1 milla

Kuadrilen errelebu lasterketa

Gizon, emakume eta talde mistoentzako 4 x 1 milla

Euskadiko txapelketa

Gizon eta emakume taldeentzako 4 x 1 milla



ORGANIZA

SUPER AMARA BAT



BIDASOA ATLETIKO TALDEA

ANTOLATZEN DU



gipuzkoa ADEGI

**SUPER
AMARA**



Más información e inscripciones
atletismobat.com - kirolprobak.com